

ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA 2008 · 8. ALEA

Oilategitik

XABIER ARTOLA



2008

www.oilategitik.net

non zer

3	Otsamendi
4	Anaxtasi Mendizabal, 100 urteko Alkizatarra
6	Atzo atzokoak
8	Alkizako baserriak
10	Amixuri kantuzaleak
11	Alkizako Jaiak 2008
12	Bitxikeriak
14	ESKOLA Ikasleen lanen argazkiak
19	ESKOLA Ongi etorriak
20	ESKOLA 5-6 urteko ikasleen margolarien lanak
22	UDALAREN TXOKOA Ur hondakinen trataera
25	lazko festetako bertso batzuk
26	Joan den urteari begira
33	TOPONIMIA V Alkizako herriburua eta inguruak
39	Denbora-pasak
40	Ongi etorri Alkizara
42	ARTIKULUA Alkizarrak Sarobetarrak ote?
45	ARTIKULUA Erniope Pilota Elkarte
46	ARTIKULUA Santiago ermita
48	ARTIKULUA Garai bateko eskaleak
50	ARTIKULUA Planeamenduko arauak
54	ARTIKULUA Alkiza 1947
56	ARTIKULUA Txikia izanik, haunditzen
58	ARTIKULUA Madarikatua izan dadila...
60	ARTIKULUA Martin Diez eskultorea
62	ARTIKULUA Gure piztiak, Hontzak
64	ARTIKULUA Peruko idiak
66	ARTIKULUA Hiri hondakinen bilakaera

Argitaratzailea eta koordinazioa: Alkizako Oilategitik K.E.

Tirada: 800 ale.

Lege Gordailua: SS 814/01

Oilategitik aldizkaria doan banatzen da eta ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Otsamendi

1 965eko urtarrilaren 10ean Otsamendi baserria utzita Segundo Saizar eta Maria Aierbek Ostatu taberna hartu zuten. Hiru seme-alaba zituzten ordurako, Gema, Eleni eta Mitxel, gerora Ana eta Marijo jaio ziren.

20 urte pasa zituzten han, zenbat lan, zenbat oroitza-pen ... kartak banatzen, telefono deiak eta enkar-guak jasotzen eta baserrietara abisua pasatzen, medikuaren kuotak kobratzen, bandoak zabaltzen, frontoiko argiak piztu eta haien dirua kobratzen ..., hori guztia egin behar izaten baitzuen Ostatua hartzen zuenak, eta jai egunik gabe.

Oraindik gogoan dugu larunbat iluntzeko mezaren ondoren nola joaten ginen eliza azpira, han zegoen kokkara igo eta bandoa esatera elizatik ateratako guztien aurrean.

Jende asko biltzen zen taberna zahar hartan, batez ere astelehenetan feriatik bueltan afaltzera, azkar asko betetzen zen Ostatuko mahai luze eta zahar hura; telebista ikustera ere asko joaten ziren, garai hartan Apaizetxean eta Ostatun bakarrik baitzegoen telebista.

Eskolako zenbait ume eta irakaslek ere bertan bazkalzen zuten eta Joxe Aldasoro zenak ere bai.

Zenbat oroitza-pen eder!

Horrela pasa ziren 20 urte eta 1985eko elurtean Otsamendi baserrira etorri ginen bizitzera. Handik

gutxira, 1986ko ekainaren hasieran Otsamendi Taberna ireki zen.

Hasi ginen, ba, hasi, eta 22 urte pasa dira Maritxuk prestatutako babarrunak, Segundoren oilaskoak... zerbitzatzen; herriko jendeaz gain, badira kanpotarrak, bereziki donostiarrak, 40 urte baino gehiago daramatzatenak gurera etortzen, familia bereko hiru belaunaldi ezagutu ditugu.

Eta Otsamendin berdin jarraitu genuen, 1990ean Apaizetxean Barnetegia ireki zen arte. Orduan hasi ginen barnetegiko umeekin lanean eta Alkizako eskolako umeak ere hona etortzen hasi ziren Xabier maisuarekin batera, hauek guztiak oraindik ere bertan jarraitzen dute.

Zenbat afari, zenbat mus partida, zenbat eztabaida, zenbat baratxuri zopa eta oilasko festetan goizaldean, zenbat ehizeko lizentzia egin diren, zenbat uso bota diren Otsamendiko barran jarrita... A ze parrak!

Bai batean, bai bestean, gauzak ahalik eta ondoen egingen saiatu gara; beti ez genuen lortuko, baina saiatu, saiatu gara. Eta orain ixteko erabakia hartu dugu, gure ustez guretzat egokiena; osasunak laguntzen badigu, lasaiago bizitzeko eta bizitzaz gehiago disfrutatzeko.

Otsamendin egongo gara, ez barran noski, baina bai Otsamendi etxean, etorri lasai nahi duzuenean kontu batzuk esatera.

Agur eta mila esker guztioi.

Familia Ostatur bizi zenean





Anaxtaxi bere alaba eta semearekin.

Anaxtaxi Mendizabal, 100 urteko Alkizarra

Anaxtaxi Mendizabalen istorio latz eta hunkigarri hau beste edozein baserri eta familian gertatzen zenaren antzekoa da, horrelakoxea baitzen garai haietako egoera. Izan ere, Alkizako zaharrek askotan esaten dute nagusi eta maizterren arteko liskarrak zirelako medio, edo bizimodu hobe bat bilatzeagatik, urtero gertatzen zirela baserrietan aldaketak San Martin egunaren inguruan. Huraxe izaten zen errentak kitatzeko eguna Alkizan. Gaur egun Anaxtaxiren anaia Juan Luis zenaren sendia bizi da Alkizan, Bentzalaga txiki baserrian.

Eskerrak eman nahi nizkioke beste alkizar bati, Oiartzunen bizi den Joxe Mendizabali hain zuzen ere, idatzi hau berak helarazi baitit.

Anaxtaxi 1907ko urriaren 5ean jaio zen Alkizako Arpide baserrian. Bere gurasoak Rufino Mendizabal eta Florentina Mendizabal izan ziren. Zazpi anai-arreba izan ziren, baina hauetatik hiru aingerutan hil ziren. Besteak, Benita, Joxepa eta Juan Luis. Anaxtaxi seigarrena izan zen. Sei urtekin eskolan hasi zen, baina bere maistra nor izan zen ez da gogoratzen. Dotrina etxean eta eskolan ikasi zuen. Komunioa egi-

teko apaizarengana joaten zen. Zazpi urterekin komunio txikia egin zuen eta handia hamaikarekin.

Eskola denborako gertakizunei buruz honela mintzatu da Anaxtaxi: "Eskolara dotrina ikasi eta komunioa egiteko joan nintzen gehienbat. Piperra maiz egiten nuen etxeko lanak egiteko, eta behiekin mendira joateko. Gazte-gaztetatik "gizon lanak" egitea suertatu izan zait beti: behiak, otorduak. Mendiko lanak".

Arpiden bere gurasoekin, anaia Juan Luis ezkondu zen bitarte bizi izan zen. "Anaia ezkondu zenean "irabazia libre" (jana bai, baina soldatarik ez) jarri zidan, eta etxetik atera behar izan nuen 16 urterekin. Orduan, ahizpa Benita lehendabiziko haurra izateko zegoen eta berak eramanez ninduen. Berarekin jarri nintzen bizitzen, neskame bezala, Alkizan bertan Arpide – Etxeberri baserrian. Geroztik, beti ahizparekin bizitu nintzen ezkondu arte, hau da, guztira 21 urte".

Beraz, Anaxtaxi bere gazte denbora osoa baserriari lotua bizi izan zuen. Etxetik kanpora festetan bakarrik irtetzen zen, eta gogoan ditu Larraul, Billabona, Asteasu eta Zizurkilgo festak.



Arpide baserria gaur egun.

Arpide-Etxeberri baserrian bizi zirela, bertan maizterak zirenez, nagusiak baseria erosteko, edo kanpora irteteko aukera jarri zioten, eta bere ahizpak baserri-
tik irtetzea erabaki zuen. Benazio Rekalde albaiariaren bitartez, Oiartzungo Aitzola baseria alokatzeko aukera izan zuen. Honela, Anaxtaxi Oiartzunera etorri zen 22 urte zituela. Aitzola baserrian 12 urte iraun zuten, baina hemendik ere irten beharra egokitu zitzairen, eta Ezkontsegi Etxeberri baserrira pasatu ziren. Bi urte igaro ondoren, beriro etxez aldatu beharra egokitu zitzairen, eta Bordaxar baserrian jarri ziren. Hemen urte ta erdi pasatu, eta 1945eko apirilaren 21ean, Agustin Oria Lekuona oiartzuarrarekin ezkondu zen, Olazar baserrian bizitzen jarriaz. Hiru seme-alaba izan zituzten: Antonio, Joxepa, eta Maria Luisa, baina Joxepa bi hilabete eta erdirekin hil zitzairen. Olazarren 19 urte igaro ondoren, berriro baserri-
tik alde egin beharra suertatu zitzairen, eta Palaziora pasatu ziren. Han bizi zirela ia lau urte pasa ondoren, Tolarieta auzoan etxebizitza berria erostea erabaki zuten, eta 1968 ezker, bertan bizi da amona Anaxtaxi bere alaba Maria Luisarekin. Senarra, Agustin, 2002 urtean hil zitzaion, 57 urte elkarrekin bizi ondoren. Urrezko eztaiak 1995eko apirilean ospatu zituz-

ten. Anastasik une honetan hiru biloba ditu: Aloña, Garikoitz eta Nagore.

Ehun urte hauetan bizipen ugari pasa ditu Anaxtaxik. Besteak beste Gerra Zibilak Aitzolan harrapatu zuen, eta baserria reketeei utzi beharra izan zuten. Aitzola-
tik Etxeberrira joan ziren, eta 40 egun pasa arte ezin izan zuten Aitzolara itzuli.

Baserria utzi eta Tolarietan bizitzen jarriz geroztik, beti etxeko lanak egiten aritu da.

Ehun urte hauetan ikusi duen aldaketarik handiena, irratia eta telebistaz gain, hegazkina izan dela esan digu.

Gainerakoan, gaur egun goizero 8:30etan Segurako irratia emititzen duen meza entzuten du, eta errosarioa ere errezatzen du. Arantzazuko eta Obra Maxima aldizkariak irakurtzen ditu. Gero bizimodu arrunta egiten du, eta gaueko 9:00ak aldera ohera joaten da.

Ehun urte lortzeko ez du gauza berezirik egin, lana izan ezik.

Azkeneko 5 urteetan Oiartzungo amona izendatua izan da. ■

Atzo atzokoak

Albiztegiko familia:

Juan Antonio Arantzabe (txapel gorria, 1861-1950?) eta Azaldetxeberriko Joxepa bere emaztea, beren hiru seme-alaba: Pedro Albiztegiko Bernardoren aita, Maria Juana Intxaurrendiko Nikasio Urruzolaren emaztea, eta Benito Antxun istripuz hila.



Berandoaingo Iguaran familia:

Ramon eta Maria aiton-amonak, eta seme-alabak ezkerretik askuenera: Inisio frailea, Bengoetxeko Benardina, Gaiokotxeko Dorotea, Isidro oinordekoa, Iparragirreko Benita eta Paulo (Hernani), Eulako Santi (Urnieta), Daniela serora eta Dolores. Ranon Lehen Mundu Gerraren garaian etorri zen Urruñatik, armadara ez joateagatik ihesean. Horregatik "frantsesa" esaten zioten. Garai hartan milaka Iparraldeko gaztek Hegoaldera eta Amerikara egin zuen ihes.



Leteberriko Pantaleon Iruretagoiena eta Mariakutx Ugartemendiaren ezkontza eguna:

Bentzagalako Agustina, Brigida eta Inazio Mari Ugartemendia senideak, Kasinto eta Nikasio Iruretagoiena anaiak eta Urrutikotxeko Juan Jose Elola.





Arantzabene baserriko Frantzisko Mari Mugika.



Frantzisko Mari Mugikaren emaztea Juana, haren familia, Bidaniako Iraola sendiko bi guraso eta bost seniderekin.



Maitegi baserriko amerikanoa zaldi gainean.

IRIBEITIA

Historian zehar grafia desberdinarekin ageri da: Iribeeytia, Hiribehetia, Iribeitia eta Iribeti. Bertako bizilagunen abizenak hauek aurkitu dira: Iribeitia, Lizarraga, Iñarra, Olasagasti, Geresta, Usabiaga, Otegi, Legarra eta Roteta. Baserri hau gaur teilatua erorita, hutsik eta egoera lastimagarrian aurkitzen da. Alkizako lehen batzar dokumentatuan, 1348an, bertan ziren Iribeitiako Santxo Perez eta Martin Santxez.

**KARABELA**

Carabela, Karabela Kábela grafiaz agertzen da baserriaren izena. Izenari Amerikako oihartzuna dario. Baserria bazen 1563an, eta 1583an, Iribeitiako Graziana eta Joanes ilobaizebak ziren bere jabe. Karabelan bizi izandako abizenak: Iribeitia, Lizarraga, Legarra, Usabiaga, Canibrides, Iturzaeta, Urkizu, Garmendia, Iguaran, Beobide, Urruzola, Noenlle Cruces.

**KATALANDEGI**

Cathalandegui, Catalandegi eta Katalandegi bezala azaltzen da bere izena. Lehen aipamena 1553koa da eta geroztik dokumentazio luzea darama, Leteko Martin Alkizalete eta Bengoetxeako Lorentzo Alkizaleteren kaperautzetan etengabe agertzen baita. Azkenik, Prudentzia Legarra hil zenean, Juan Bautista Gabirondok eskuratu zuen. Bertako biztanleen abizenak, berriz, Elola, Landa, Gabirondo, Esnaola, Gorostegi eta Arantzabe.

**KUKUTEGI**

Alkizan bazen Kukutegi izeneko etxe bat, 1561ean, Liazasoro kiskali eta Kontzejuak erretako etxeei diruz laguntzea erabaki zuenean, "Cucutegi la vieja" deitua. Bestalde, 1771n, antzeko hiru etxeren izenak ageri dira: Goiko eta Beheko Kukutegi eta Kukutegi-etxeberri txo. Etxe horietako abizenak, berriz, abizenok aurkitu dira: Kukutegi, Urruzola, Arrue, Amondarain, Iztueta, Caminos, Garmendia, Gaztañaga, Gorostidi, Elola, Goñi eta Argote. Etxe hura Portseta bezala ere dokumentatua dago.



Alkizako baserriak



LETEBERRIA

Bazen, 1598an, Leteberriako Martin bat, Alkizan erregidore zena, beraz, etxearen jabe. Bi idazkera aurkitu dira Leete echeverria eta Leteberria. Bertako biztanleen abizenak, berriz, Leteberria, Saizar, Iturrioz, Aranburu, Arruabarrena, Mintegia, Jauregi, Iru-retagoiena eta Ugartemendia.



LITZARZELAI

Liçarcelai, Lizarzelai eta Lizartzelai bezela erabili izan da historian zehar. Lehen aldiz 1652an agertzen da. Leteko jabeek eraiki zuten Lizartzelai izeneko alor batean, errentamenduan betekizun hauek jarri zizkioten maizterrei: diruaz gainera gaztainondo eta haritzak aldatzekoa bere sailtan. Prudentzia Legarra hil zenean, bere kaperautzan zegoenez, maizterrek bereganatu zuten. Biztanleen deiturak, Beiztegi, Igoaran, Ugartemendia, Ulanga, Arruti, Aranzabe eta Lekuona.



LIAZASORO edo LITXASO

Hacasoro?, Liaçasoro, Liazasoro, Linazasoro, Litxaso baserri izenak erabili dira. Hacasoro Litxaso bazen, existitzen zuen 1396ko lehen batzarrean abizen hori zutenak baziren eta. Dena dela, 1516 urtez gero, baserri hura oso dokumentatua dago, esaterako, 1561ean erre eta berehala berria eraiki zuten. Pertsonaia ospetsuak bertan jaio eta atzerrira zabaldu ziren, sonatuena Liazasoroko Marti eskultorea. Lekukoek diotenez, 1930ean, bigarren aldiz kiskali zen. Bertako biztanleen deiturak honakook: Liazasoro, Uruzola, Irazusta, Sorarrain, Mugika, Beloki, Sarasola, Letemendia, Atxaran, Ezeiza eta Mendizabal.

Kaixo lagunok, beste urte bat zuekin



San Isidrotako kantu bazkarian, dantzan.

Aurtengoa luze eta ekintzaz pila-tuta izan dugu.

Ziur aski herri mailan politena KALDEREROAK izan dira, hirurogeita bost bat herritarrek parte hartu zutelarik, Peruko Aitorren traktorea eta guzti, musika ekipoa gainean zeramararik. Azkenean gasolioak eta denak Elizegi aurrean bukatu ziren, eta afaltzera sartu ginen.

Festa ederra prestatu genuen denon artean, kantuak berriak ziren ia guztiontzat, baina entsaio batzuekin ederki atera ziren. Kalderero kanta entzun ziren herriko punta batetik besteraino, plaza erdian atsedean bat eginez, suaren inguruan kanta eta txorixo tartean.

Argi dago beste baterako ere, ezarriak berotu, txano eta gona, zartagin zaharrak eta ingudea hartu, eta kalera irten behar dugula..

Beste erronka batzuen artean ere, bat bazegoen: Zizurkil eta Astea-sukoekin batera kantatzea, horre-

tarako kantutegi bat adostu genuen eta konprometitu ginen bata besteen festetan parte hartzera.

Lehenengo Asteasuko Usarrabi kantuzaleekin abestu genuen apirilaren bostean. eta gero San Isidrotan maiatzaren hemezortzian Alkizako kantu bazkarian

Alkizako kasuan bigarren urtez, kantu bazkaria egin genuen, eta aurrean dantza ere erantsi genion. Bikaina prestatu genuen, ia ehun eta hogeita pertsona elkartu ginen babarrun eta txerriki, kantu eta dantzak laguntzaile zirela.

Donostia, Hernani, Aduna, Astea-su eta Zizurkilgo jendea etorri zen, tartean baita bi dantza irakasle ere.

Alkizako dantzari txikiak ere saio ederra egin zuten eta beraiekin, nolabait, kantu eta dantza bazkariari hasiera eman zitzaion

Datorren urtean gehiago eta hobeto

Mugetatik kanpo, martxoaren hogeita hamarrean, Donibane

Lohitzunera hirugarren urtez gonbidaturik joan ginen Alkizako Amixuri kantuzaleak. Gu bezala, bazeuden bazter guztietako taldeak eta jendea. Ia bostehun bat lagun elkartu ginen bertako bazkarian.

Azkenik aipatuko genituzke Alkizako elizako koruekin egindako saioak Egia esan, poza izan da zuekin abestea.

Amixuriko batzuk elizkoiak izan ez arren, herritarrek bezala parte hartu nahi izan dugu elizako koruekin. Ez al da gauza ona herritarrek elkarri laguntzea?

Kantuak elkartu gaitu elizan, gero diote ez dagoela afiziorik Alkizan.

Eskerrak Imanol Lizardiri urtean zehar egiten dizkigun bertsoengatik.

Hurrengo ekintzak:

Zizurkilen,urriaren hemeretziaren Epergain kantuzaleekin

Adunako aste kulturean azaroaren hogeian. ■



Asto lasterketa, mozorrotuta.



Pilotariak.

Alkizako Jaiak 2008

PROGRAMA

IRAILAK 4 / Osteguna

16:00 Haur Jolasak festei hasiera emanez

Ondoren Potxin eta Patxin Pailazoak

21:00 Herri afaria Ostatu jatetxean

23:00 Trikitixa

IRAILAK 5 / Ostirala (Mozorroen eguna)

Kalejira eta poteoa egingo da Batukadarekin

21:00 Barrikotea

23:00 BERTSOLARI JAIALDIA: S. Lizaso, A. Egaña, M. Lujanbio, J.M. Irazu, A. Mendiluze, B. Gaztelumendi.

Gai jartzailea: Unai Elizasu

Ondoren Bidebatez (Etxabe) taldearekin erromeria

IRAILAK 6 / Larunbata

10:30 Herriko umeentzako txirindulari lasterketa eta toka txapelketa

18:00 Herri kirol saioa herriko gazteen artean Ion Zabala eta Izaskun Mendizabal zirenen oroimenez

Ondoren Sagardo dastaketa izango da denentzat

23:00 Herri kirol saioa Aizkolari eta Harrijasotzaileekin

Ondoren Kontzertuak

IRAILAK 7 / Igandea

10:00 Meza Nagusia

10:15 Pelota Partiduak: GAZTEEN ARTEKO XVIII. TXAPELKETAKO FINALAK

16:00 Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolatutik, bazkide eta herritarrentzat

17:00 Asto lasterketa herrikoia mozorrotuta

Ondoren Allur Dantza taldearen emanaldia

Ondoren Agurtzane eta Ion Elustondoren eskutik erromeria

IRAILAK 8 / Astelehena

Meza

12:00 Toka gaztetxoena

14:00 Jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean

Ondoren Beteranoen arteko XVII. PELOTA TXAPELKETAREN FINALA Toka txapelketa herrikoia

Trikitixa festeei bukaera emanez

JOSE MARI ARANZABE

Bitxikeriak

Alkizan, 2007ko abenduaren 31n, 347 biztanle zeuden erroldatuta, 2006an baino 25 gehiago. Hori horrela izateko 38 alta eta 13 baja egon ziren urtean zehar. Altak honela banatuak: jaiotzak 9, beste herrietatik etorritakoak 27, eta estranjeriatik etorritakoak 2. Bajak, berriz: hildakoak 2 eta beste herri batera joandakoak 11



Xuhar
Roteta



Markel Odriozola



Julene Goikoetxea



Oinatz
Goenaga



Markel
Oteiza



Iraide Pellejero



Andrea Leite



Amalur
Rodriguez



Unai
Arozena



0 – 20 urte bitartekoak (%24,21):

gizonezkoak, 47
emakumezkoak, 37

21 – 40 urte bitartekoak (%29,97):

gizonezkoak, 53
emakumezkoak, 41

41 – 60 urte bitartekoak (%28,53):

gizonezkoak, 56
emakumezkoak, 43

61 – 80 urte bitartekoak (%13,26):

gizonezkoak, 28
emakumezkoak, 18

81 urtetik gorakoak (%4, 03):

gizonezkoak, 9
emakumezkoak, 5

GUZTIRA: 347; 193 gizonezko eta 154 emakumezko

JAIOTZAK HAUEK IZAN DIRA:

- Andrea Leite Montecelo
- Oinatz Goenaga Morea
- Xuhar Roteta Arizeta
- Iraide Pellejero Iruretagoiena
- Markel Odriozola Mujika
- Unai Arozena Subijana
- Julene Goikoetxea Zurutuza
- Amalur Rodriguez Ruiz
- Markel Oteiza Albizu

HERIOTZAK, BERRIZ, HAUEK DIRA:

- Pedro Manuel Sorarrain Amunarriz, Peru baserrikoa
- Maria Clotilde Goenaga Uria, Albiztegi baserrikoa

ALKIZAKO HAMAR EMAKUMEZKO ZAHARRENAK:

- Benita Saralegi Eizmendi 98 urte Etxabe baserrikoa
- Aurea Saizar Goenaga 86 urte Katalandegi txiki etxekoa
- Brigida Otaegi Elizegi 85 urte Agiña Bekoa baserrikoa
- Isabel Urruzola Aranzabe 85 urte Elizegi baserrikoa
- Maria Carmen Zinkunegi Irigoyen 82 urte Garmendi azpi baserrikoa
- Ildefonsa Amondarain Amondarain 81 urte Etxabe txiki baserrikoa
- Mercedes Aranzabe Iruretagoiena 80 urte Arritza baserrikoa
- Natividad Iraola iguaran 79 urte Bengoetxe baserrikoa
- Carmen Cruces Perez 78 urte Don Juanena etxekoa
- Maria Ayerbe Zubiarrain 77 urte Otsamendi baserrikoa

ALKIZAKO HAMAR GIZONEZKO ZAHARRENAK:

- Jose Joaquin Aranzabe Ezama 86 urte Elizegi baserrikoa
- Pantaleon Saralegi Eizmendi 86 urte Basozabal baserrikoa
- Antonio Eizmendi Saralegi 85 urte Agiña bekoa baserrikoa
- Angel Arsuaga Eizmendi 83 urte Bengoetxe baserrikoa
- Jose Antonio Uzkudun Ugalde 83 urte Aizmendi goikoa baserrikoa
- Pedro Urruzola Aranzabe 83 urte Intxaurren aurrekoa baserrikoa
- Juan Maria Ayerbe Zubiarrain 83 urte Etxabe txiki baserrikoa
- Raimundo Gabirondo Tolosa 82 urte Katalandegi baserrikoa
- Jose Angel Beobide Uria 82 urte Berandoain baserrikoa
- Segundo Saizar Goenaga 81 urte Otsamendi baserrikoa

eskola

2007/2008 ikasturteko pasadizorik esanguratsuenetakoak aurkeztu nahi dizkizuegu ondorengo orrialdetan. Ikasturtean zehar egindako hainbat lan eta jarduera ikusi ahal izango dituzue argazkien bidez.

2 urtekoen lanak:



(AIMAR KOTXEAKIN IBILTZEN)



(ARITZ JOLASTEN)



(LOREA MOZORROTZEN)



(IÑAKI PUZZLEA EGITEN)



(IRATI ESERITA)



(MALEN PAIASOZ JANTZITA)

Alkizako Herri Ikastetxetik



3 - 4 urtekoen lanak:

ANTZERKIAN ATEA JOTZEN




ATER KPA ATER JOSTE 2



ANNE BAZKALTZEN
(ANNE BAZKALTZEN)



NAROA
WA M N P
(NAROA JAZTEN)



OIER GOMETXAK JARTZEN
(OIER GOMETXAK JARTZEN)

eskola



MIKEL LOTAN
(MIKEL LOTAN)



HOIER A DUELEAK EGITEN



MARKEL PUZLEA EGITEN
(MARKEL PUZLEA EGITEN)



JONE IZNAK JARTZEN
(JONE IZNAK JARTZEN)



OLAIA ORDENAGAILUAN
(OLAIA ORDENAGAILUAN)



AIDRA ZENBAKIAK IKASTEN
(AIDRA ZENBAKIAK IKASTEN)

Alkizako Herri Ikastetxetik

5 - 6 urtekoen lanak:



NI AITOR SORARRAIN NAIZ.
ANIMAL SVA MESA IKASTEN ARI
NAIZ AL FONRALE RAA RTU
BEAR DIRA ETA IZENA
JARRI

MARGOLARI FANTUEN
KOADRO BAZUK NARGOTU
DITUGU.

NI AITOR SORARRAIN NAIZ.
ANIMAL NAMES IKASTEN ARI
NAIZ AL FONURAN LETRAK HARTU
BEHAR DIRA ETA IZENA JARRI.

AITOAL ITURRIOT NAIZ.
MARGOLARI FANTUEN
KOADRO BAZUK NARGOTU
DITUGU.



NI ANE TXAPARTEGINA IZ. BONBARA JO-
LASTEN ARINAIZ. SOINKETAN ERE
JOLASAK EGI TEN DITUGU GAIEN-
SUSTATZEN ZARTEVA TXORIPAKETA PUTREA
OLASADA.

NI ENAIT AITURRIOT NAIZ.
MARGOLARI FANTUEN
KOADRO BAZUK NARGOTU
DITUGU.

eskola



NI GERREZI JAUREGI NAIZ
 GELAN GU SAN ODEPEDA DITUGU OSTO
 BAT EMAN DIOGU ETAKA BIA IREAN
 DITUZTE ORAIN TXIMELETA KBA
 TZEUK JAIODRA

NI GERREZI JAUREGI NAIZ.
 GELAN GU SAN ODEPEDA DITUGU OSTO
 BAT EMAN DIOGU ETAKA BIA IREAN
 DITUZTE. ORAIN TXIMELETA
 BATEUK JAIODRA



Ki Mamex Otegi naiz. gelanetan
 umama eta aitonai kantatzen jarra
 gurean. Buktatzen jarra
 merienda gurean eta marturaz
 eta marturaz jarra



NI, MATTIN GOROSTIDINAIZ,
 ORDEGAIUANA ARINAIZ JOLASTEN
 URDINTXO ETA DOXERA.
 JOLASAN APART ORDENAGAIUAN
 IDAZTENEGITEN DUGUASKOTAN.

NI MATTIN GOROSTIDE NAIZ.
 ORDENAGAIUAN ARINAIZ JOLASTEN
 URDINTXO ETA DOXERA.
 JOLASAN APART ORDENAGAIUAN
 IDAZTEN EGITEN DUGUASKOTAN.

Ongi etorriak

Jakingo duzuen bezela aurten eta datozen bost urtetan eskolatik **ez da inor Erniobera aterako**. Iaz Lehen Hezkuntzan lau ikasle ziren, maila bakoitzeko bat eta Zizurkilgo "San Milan" eskola txiki bideratzea erabaki genuen guraso eta irakasleok Hezkuntzakoekin luze aritu ondoren.

Baina etorri bai, datorren ikasturtean ondorengo hiru neskek eta mutikoa etorriko zaizkigu.

Ikasle hauek, ikasturte honetan, gurekin ibilitako bi urteko zortzi ikasleekin talde bat osatuko dute, hau da, hama-biko taldea.

Siesta egiteko leku falta dela eta, ikasgela txikiegia gelditu da eta bertan eskola berria eraiki arte (hau ere agindu baitigute) aldaketa batzuk eskatu dizkiegu Hezkuntza ordezkarikoei, baita onartu ere!

Hauk dira agindu dizkiguten berrikuntzak:

- Tailerrean 2 – 3 urteko gela prestatzea



Maialen



Izaro



Oihana



Aratz

- Oraingo ordenagailu-gelan sehaska-gela ezertzea
- Ordenagailu gela, oraingo bi urtekoen gelara igotzea.
- Tailerra, Udaletxeak Haurreskola ondoan duen bajejara eramatea.

Espero dugu aldizkari hau kaleratzerako dena preste egotea!

Gure ikasle berri hauen gurasoekin elkarrizketa bat egin dugu, hona hemen beraien erantzunak:

Orain arte zeintzuk izan dira zuen seme – alabak herri honetan heitzeko topatu dituzuen erreztasun edo zailtasunak?

Erraztasunak, guztiak izan dira, txiki – txikitatik behar izan dutenek haurra haurreskolara bidaltzeko aukera izan dutelako, bertan oso gustora egonik. Jarraian eskola herrian bertan izateak ere lasaitasuna ematen die.

Gure eskolaren berri ba al duzue?

Denek dute eskolaren berri, nahiz eta batzuk gehiago besteek baino.

Batek aurretik semea bertan duenez, irakasleak ezagutzen ditu eta badaki zehozer jakin nahi izanez gero ez diotela inongo arazorik jartzen bilerak egin edo informazioa emateko. Badakite ere eskola herritarrekiko irekia dela eta bertan diren ekintzak ezagutzen dituzte.

Herriko eskolatik zer da gehien erakartzen dizuena? Eta gutxiena?

Gehien gustatzen zaiena haur gutxi izatea da, honek dituen onurakin: atentzio pertsonalizatua izatea, gurasoak eskolako dinamikan oso presente egotea, herriko haurrekin heitzea eta haztea...

Guraso batzuei talde berean adin desberdinetako haurrak egotea

gustatzen ez zaien bezala, beste guraso batzuei, modu honetara, harreman aberatsagoak uztartzen direla iruditzen zaie. Askotan erlazioak hain estuak izateak ere ekar ditzakeen ondorioak ez zaizkie gustatzen. Eta gutxiena erakartzen diena beste herri eta kultura ezberdinetako pertsonak ezagutzeko zailtasun handiagoa dituztela da.


Zergatik erabaki zenuten eskola honetara ekartzea eta ez beste batera?

Denak ados daude erosotasuna faktore bat dela, baina badira beste hainbat arrazoi: eskola txikia izatea, gurasoetako batek bertan ikasi izana, herriko giroa eta bertako haurrekin hezi eta haztea. ■

eskola

5 - 6 urteko ikasleen margolarien lana

MARGOLARIEN BIOGRAFIAK



EGILEAK:

- MANEX OTEGI
- ERNUT ARANBURU
- MATTIN GOROSTIDI
- GEREZI JAUREGI
- AITZOL ITURRIOZ
- ANE TXAPARTEGI
- AITOR SORARRAIN

**ALKIZAKO HERRI ESKOLA
2007/2008 IKASTURTEA**

AURKIBIDEA

- PABLO PICASSOREN BIOGRAFIA.....1
- CUADROS DE PABLO PICASSO.....2
- JOAN MIROREN BIOGRAFIA.....5
- CUADROS DE JOAN MIRO.....6
- JUAN LUIS GOENAGAREN BIOGRAFIA.....8
- COADROS DE JUAN LUIS GOENAGA.....9

PABLO PICASSO



PABLO PICASSO MAGALANA JAIO ZEN. 1881URRTAN AITA EUSKALDUNA ZEN ETA OSMARAKILARE ONAZEN. OSO IKASLE TXARRAZEN BAINO OSO MARRZKLARIONZEN. KONURA JOANZIREN ETAGR BRZZENORA JOAN ZIREN. AMABOS URRTKIN BERELATOIA EGINZUEN. BERE KOADORE ERKUSKTA EGINZUEN 1898.ILTZE 1973 URRTEAN FRANTZIAN KOADRO BREZIAK DIRA ADIBIDEZ GERNIKA ETA LAS MENINAS DIRA.

PABLO PICASSO MALAGAN JAIO ZEN 1881 URRTAN. AITA EUSKALDUNA ZEN ETA OSO MARRAZKILARI ONA ZEN. OSO IKASLE TXARRA ZEN BAINO MARRAZKILARI ONA ZEN. OSO MARRAZKILARE ONAZEN. OSO IKASLE TXARRAZEN BAINO OSO MARRAZKLARIONZEN. KONURA JOANZIREN ETAGR BRZZENORA JOAN ZIREN. AMABOS URRTKIN BERELATOIA EGINZUEN. BERE KOADORE ERKUSKTA EGINZUEN 1898. ILTZE 1973 URRTEAN FRANTZIAN KOADRO BREZIAK DIRA ADIBIDEZ GERNIKA ETA LAS MENINAS DIRA.



TITULO DEL CUADRO: Satiros y cabras
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1959
TECNICA: Litografía



TITULO DEL CUADRO: Guernica
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1937
¿DONDE ESTA?: Madrid
TAMAÑO: 350x782,3 cm
TECNICA: oleo sobre tela




TITULO DEL CUADRO: Las meninas
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1957
¿DONDE ESTA?: Barcelona
TAMAÑO: 161cm x 129 cm
TECNICA: oleo sobre tela



TITULO DEL CUADRO: Corridas y palomas
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1890
¿DONDE ESTA?: Barcelona
TAMAÑO: 13,5x20,2cm
TECNICA: lapiz sobre papel



TITULO DEL CUADRO: Muchacha sentada en un sillón rojo
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1932
¿DONDE ESTA?: Londres
TAMAÑO: 130x91 cm



TITULO DEL CUADRO: Instrumentos musicales sobre una mesa
PINTOR: Pablo Picasso
AÑO: 1925
¿DONDE ESTA?: Madrid
TAMAÑO: 162 x 204,5 cm
TECNICA: oleo sobre lienzo

Alkizako Herri Ikastetxetik

JOAN MIRO



1883 urtean jaio zen Bartzelonan. Bere aitakiantegia zeukan erlojuak saltzen ziluen. Denda baten dirukontuekin lan egin zuen asperitu egin zen. Eta gaixotu egin zen eta pintatzen asi zen. Lehen erakusketa 1918 an egin zuen. Mallorkan lizen 1983 urtean.



TITULO DEL CUADRO: Tierra labrada
PINTOR : Joan Miró
AÑO: 1923/24
¿DONDE ESTA?: Nueva York
TAMAÑO: 66x 92cm
TECNICA: Oleo Sobre Lienzo



TITULO DEL CUADRO: La masia
PINTOR: Joan Miró
AÑO: 1921
¿DONDE ESTA?: Nueva York
TAMAÑO: 132 x147cm
TECNICA: óleo sobre tela



TITULO DEL CUADRO: El carnaval del arlequin
PINTOR: Joan Miró
AÑO: 1924/25
¿DONDE ESTA?: New York
TAMAÑO: 66x93 cm
TECNICA: Oleo sobre lienzo



TITULO DEL CUADRO: Corrida de toros
PINTOR: Joan Miró
AÑO: 1945
¿DONDE ESTA?: Paris
TAMAÑO: 114x145
TECNICA: óleo sobre lienzo

JUAN LUIS GOENAGA



1950 JAIQZEN DONOSTIN PARIXERABIZITZERA JOANZEN BAKARRIK IKASIZUEN PINTATZEN ESKUAREKINETA AANKAREKIN MARGON DU PLASTIKOAREKIN ETA SAREAREKIN EREBAI MARGOTZENDULEENENGO ERAKUSKETA 1973DONOSTIA EGINZUEN. GAUREGUN LAKIZANBIZIDA

1950 AN JAIQZEN DONOSTIAN PARIXERA BIZITZERA JOANZEN BAKARRIK IKASIZUEN PINTATZEN ESKUAREKINETA AANKAREKIN MARGON DU PLASTIKOAREKIN ETA SAREAREKIN EREBAI MARGOTZENDULEENENGO ERAKUSKETA 1973 DONOSTIAN EGINZUEN. GAUREGUN LAKIZANBIZIDA.



TITULO DEL CUADRO: Huerta de los gentiles
PINTOR: Juan Luis Goenaga
AÑO: 2000
TAMAÑO: 115x90cm
TECNICA: oleo sobre lienzo



TITULO DEL CUADRO: Tormenta
PINTOR: Juan Luis Goenaga
AÑO: 2000
TAMAÑO: 100x65cm
TECNICA: oleo sobre lienzo



TITULO DEL CUADRO: Luzerna oria
PINTOR: Juan Luis Goenaga
AÑO: 2003/2006
TAMAÑO: 195x195cm
TECNICA: lienzo oleo



TITULO DEL CUADRO: Bodegón con calabaza y Aguila disecada
PINTOR: Juan Luis Goenaga
AÑO: 2000
TAMAÑO: 100x81 cm
TECNICA: oleo sobre lienzo

Ur hondakinen trataera: Hobi septikotik araztegi biologikora

Gure herriko hainbat baserrietan ez da hain aspaldikoa izango, egia esan, baina ziur gehiengo batek ahaztuta daukala ura etxe barrura ekarri zenekoa.

Landa inguruko herri txiki bat izateak ez du zertan galarazi behar aurrerabide urbanoez baliatzea eta, jakina, hemen ere gureganatu ditugu. Gaur egungo bizitzak ia ezinbestekotzat jotzen du etxean ura izatea: norberaren higieena, etxeko hainbat garbiketa eta janariaren prestaketa bezalako jarduerak eskatzen dituzten baliabideak guztiz derrigorrezkoa egiten dute etxeko ur hornidura.

Halaber, dena dela, ura etxe barrura sartzeak, berau erabili eta gero etxetik ateratzeko beharra dakar berarekin eta hor hasten da ur-hondakinen kontua: nonbaitera eraman behar da. Honi aurre egiteko hainbat eta hainbat modu egon badira ere, etxalde bakoitzaren lur eremuaren arabera gehienetan, etxe pilaketa ematen den hirigunean aukerak mugatu egiten dira eta estolda moduko sistema ezartzen da putzu beltz amankomun batera ematen duena.

Alkizak azkenengo aldiz horri aurre egin behar izan zionean orain dela 22urte izan zen, hobi septiko bat eraikiz eta plazako ur zikin guztiak horra bideratuta. Díaz Goena arkitektoak 1985ko irailean aurkeztutako memoriaren arabera, une horretan kaleko etxeek ere bakoitzak bere kasara egiten zituen isur-

ketak putzu beltzetan edo gertue-neko mendi-mazelara. Proiektuan, alde batetik, hainbat baserrien eta hiriguneko etheen ur-hondakinak eta, bestetik, euri-urak jasoko dituzten hodiak aurreikusten dira. Azken hauek errekarra bideratzen dira eta aurrenekoak egin beharreko hobi septiko berri batera. Honetan uraren arazketa *Actyzime* bakterien sistemaren bidez egingo litzateke. Proiektu osoak garaiko ia 8 milioi pezetako aurrekontua zuen eta horren %90 Foru Aldundiak emandako diru laguntzen bidez ordaintzea erabakiko du orduko udal batzak.

Hobi septikoa txikia eta zaharkitua geratzen da

Urteak joan ahala, herria hazi egin da eta lehengo azpiegitura batzuk gaindituta ari dira geratzen. Horien artean, eta nabarmen, hobi septikoak, dagoeneko bere lana behar den bezala nekez betetzen duelarik. Berritzeko, egokitzeko edo beste zerbaitek egiteko garaia heldu da eta hau ez da gerorako utzi daitezkeenetako bat. Ez horixe!, inguruan bizi direnei galdetzerik besterik ez dago. Batez ere euri jasa gogorren ondorioz gainezka egiten duenean.

Beraz, udaletxean aukerak aztertzen hasi ginen. Zegoena egokitzzea, hau da haunditzea, ez zela batere irtenbide ona ikusi zen lehendabizi. Orduan, zegoenaren antzekoa baina gaurkotua, gaur

egungo teknologiarekin egiten direnetako araztegi edo depuradora berri bat egitea azaltzen zitzaigun hurrengo urrats natural bezala. Eta horrela horretan aritzen den ingeniaritza estudio bati depuradoraren proiektua egiteko eskatu zitzaion. Zoritxarrez, horrelako araztegi konbentzionalak oso garestiak suertatzen dira, bai eraikitze orduan eta baita hortik aurrera mantentzeko ere. Hormigoizko hobi handi bat berriro, hainbat tresneria, argindarra, produkto kimiko garestiak, ... Dena dela, oztopo handiena eraikuntza kostua bera zen, udaletxeak ezin zion eta aurre egin.

Horrela geunden ba, ezin dagoenarekin jarraitu eta ezin berriari ekin, udaletxearen aurrekontuak ez zuen nahikorako ematen eta dirulaguntza txiki bat besterik ez genuen. Jakina, mailegu bat eskatzeko bidea zegoen baino horretarako ere kopuru handiegia zirudien.

Beste aukerak arakatzen

Orduan Koldok liburu bat eskuratu zigun, ur hondakinen tratamendu naturalak deskribatzen zituen, munduan zehar hainbat tokitan (Alemanian, Herbeheretan, Estatu Batuetan, Frantzian, ...) eta honetaz pentsarazi zigun. Sistema naturalagoak ziren, gurea bezalako herri txikietara egokituagoak, ekologikoagoak eta merkeagoak. Liburuan agertzen zirenak sistema begetalak ziren, propio egindako



Sistema berria Antzieta baserrian

hezeguneak erabiltzen zituzten etxeetako ur zikinak tratatzeko eta oso emaitza onak ematen zituzten. Usain txarrik gabe ura eskatutako neurrian garbitzen zuten eta eraikitzerakoan eta, batez ere, mantentzeko askoz merkeagoak ziruditen. Horrez gain, inguruarekiko askoz hobetoagoak ziren eta hori ere, gaur egun eta Alkiza moduko herri batean, kontuan hartzeko ezaugarri bat iruditzen zitzaigun.

Pista horrek martxan jarri gintuen eta argibide gehiagoren bila hasi ginen liburuetan, Interneten, Unibertsitateko adituei eta talde ekologistei galdetuta, ahal genuen moduan. Egia esan, informazio dezente aurkitu genuen eta baieztatu ahal izan genuen aukera gutiz interesgarri bat zela. Horrek itxaropen apur bat eman zigun, agian

geunden atakatik onik ateratzeko modurik aurkituko genuelakoan.

Arazoak ez ziren hor bukatzen ordea. Orain, horrelako arazte sistema natural bat eraikiko zigan baten bat topatu behar genuen eta hori ez zen batere erraza suertatu. Hara eta hona deika, Euskal Herrian ez genuen inor aurkitu, ezta horrelakoren bat eginda zeukanik ere (geroago Bizkaiko baserri baten berri izan dugu). Besterik ez genuelako, lehen aipatu dugun ingeniari-tza estudioari eskatu genion aukera hau ere aztertzea eta proiektu bat garatzea. Baina gaia ezagutzen ez zutenek (eta sistema tradizionalak argi eta garbi onesten zituztenez) ez ziguten azterketa seriorik egin eta gainera aurrekontu sinestezin bat ateratzen zitzairen. Pixkanaka joan ginen aurkitzen, bai, adibide batzuk

Katalunian, Andaluzian edo Kanariar irleetan, udalerrri batzuk sistema hauek erabiltzen zituztenak. Baina hemen horrelakorik egingo zigunik inor.

Lehen bakteriak, orain zizareak.

Beste behin geunden ba ez aurrera ez atzera nola egin jakin gabe eta ostera ere Koldori esker irtenbide bat agertu zitzaigun BIDATEKeko en berri izan zuenean. " Bidatek Ingenieria Ambiental S.L." ingurune- ingeniari-tza enpresa bat da hain zuzen ur hondakinen tratamendura dedikatzen dena eta berriki Donostian kokatua. Beraiekin harremanetan jarri ginen eta bilera batzuk egin genituen gure asmoak eta beharrak azaltzeko. Beraiei ere interesgarria iruditu zitzairen eta handik gutxira proiektu bat aurkeztu ziguten. Eskain-

tzen zigutena oso ona iruditu zitzaigun eta proiektuaren zehaztasuna eta kalitatea oso maila onekoa zen. Eta, *last but not least* esaerak dioenez, ... kostua arrazoizkoa zen, hau da, udalak aurre egin lekioken modukoa!!!

Aurkeztu diguten proiektua urhondakinen araztegi integral baten diseinua, eraikuntza eta martxan jartzea aurreikusten du. Depuradorak, hasierako filtroak (plastikoak, erortzen diren objektu txikiak) eta bukaerako azken desinfekzio kamara izateaz gain, muinean materia organikoa degradatzeko sistema biologiko bat du oinarritzat, BIDA® izenekoa, beste ekiko ezberdina egiten duena. Lehen aipatu ditugun hezegunen antzera, oraingoan, landareen ordeztu, zizareek egiten dute garbiketara: materia organikoa degradatu eta humus bilakatzen dute, ongarri bezala erabili daitekeena. Horretarako urmael edo putzu zabala baina sakonera gutxikoa prestatzen da eta hainbat kapa ezberdinez osatzen da (legarrez edo hartxintzarrez behekoa, hondarrez edo antzekoz beste bat erdian eta zizareak daukan lur geruza bat gainean. Horra pasatzen da ur zikina, behin gauza solidoak kenduta, eta iragazten joaten da geruzen zehar materia organikoa bertan geratzen delarik eta degradatzen joaten da. Azpitik jasotzen den urak azken badaezpada desinfezio tratamendu bat jasotzen du eta osasun zerbitzuek eskatutako neurri guztiak bete ondoren errekaratu askatu daiteke (orain egiten den bezala baina ziurtasun handiagorekin).


Funtzionamendu hori naturala izateaz gain, mantentzeko oso erreza eta merkea da eta ez du lan handirik ematen. Ez dira errektibo kimikoak behar, ez dira gero kendu behar diren lokatzak sortzen, tresneria eta argindarra gutxi

erabiltzen du eta ia-ia *bakarrik* funtzionatzen du. Ez du usain txarrik sortzen eta geratzen dena erabili daitekeen ongarri lehor bat da. Informazio hau eta gehiago BIDA-TEK-eko weborrian aurkitu daiteke <http://www.bidatek.com/>.

Orain arte azaldu dugun guztia kontuan hartuta, herrian egin zen azkenengo Agenda XXIeko bileran, otsailaren 22an, gaia aztertu eta eztabaidatu genuen, aurrera jarraitzeko ondorioa atera genuelarik. Beraz, asmo horrekin hainbat dirulaguntza eskaera bete ditugu. Hala ere, eta gauzak ahal den ondoen egiteko, lehendabizi eskala txikiagoan proba egitea erabaki genuen. Bada, herriko baserri batean sistema hau erabiltzen duen proiektu piloto bat martxan jartzea proposatu genuen eta ekainean burutu zen. Horrenbestez, hau irakurtzen duzueguren, zer emaitza eman duen jakingo dugu eta proiektua, abian ez bada, hasteko prest egongo dela espero dugu.

Bestalde, esan beharra dago, oraingo proiektu hau kaleko urzikinentzako dela, horretarako orain arte zegoen hobi septikoa ez zuelako gehiago bere lana betetzen. Baina horrek ez du esan nahi beste auzo eta bailara edo etxalde isolatuentzat ere aplikagarria izan ote daitekeen ez gaudela pentsatzen.

Bukatzeke, esan dezagun, proiektu hau ondo burutzen badugu Euskal Herrian aitzindariak izan gaitzkeela, gaur egun horrenbeste goraipatzen den ikerketa eta berrikuntza teknologikoan eta, zer esanik ez, ekologikoan bada. Horregatik ez badugu egiten ere, noski, uste osoa dugu gure bezalako herri txiki batera egokituagoak, ekologikoagoak eta merkeagoak diren soluzioak lehenestu behar ditugula. Eta Alkizak zerbait badauka zaintzeko eta harro egoteko bere ingurugiroa da.



Ura: Alkizako ondarea

Alkizako mendiek jaso eta lur azpian gordetzen duten ura gure herriarentzako parerik gabeko altxorra da eta udaletxean horren jakitun gara. Gero eta gehiago, XXI. mende honen hasieran mundu zabalean agerian geratzen ari da ur gezak etorkizunean izango duen garrantzia. Horregatik, lehen mailako ondarea bezala zaintzen saiatu beharko ginateke.

Hortik dator, adibidez, Ur Partzuergoan sartu nahi ez izatea. Horrek uraren kudeaketa zuzena galaraziko zigun eta etxe bakoitzean ordaintzen duguna nabarmen gehituko zen (ziur jakin ezin badaitete ere, hiruzpalau aldiz gehiago izan zitekeen beste herri batzuekin alderatuz gero).

Nolanahi ere, agian komenigarria izan daiteke aitortzea, gaurko gaiekin lotuta, hobi septiko berriaren kostua hain handia zela ikusirik batzuk izan genuela tentazioa dena Ur Partzuergoaren eskuetan uzteko eta hor konpon! Ura beraien eskuetan uztearen truke eraikuntza lanak ere bere gain hartuko lukete eta. Horretaz ez ginen gehiago diru bila ibili behar izango.

Baina, era berean, jokaldi hori herriko ondare garrantzitsu bat xahutzea izan zitekeela ikusten genuen. Eta eutsi egin genion. Jakina, eutsi egin genionez oraindik dirulaguntzen atzetik gabilta!

Aurretik datozen gazteen eskuan geratu da, ba, ondare hau nola zaindu. ■

Alkizako iazko festetako bertso batzuk (Lanku, 203-204)

Gaia jartzailea: Unai Elizasu

Gaia: gaur, zuek biok, koadrilan irten zarete parrandara. Goizeko hirurak dira, lagun guztiak joan egin dira, eta zuek biok geratu zarete. Zu, Maialen, nazkatuta zaude Ametsekin. Ez dizu batere kasurik egiten. Jendea du beti aldamenean, eta zu bazter batera uzten zaitu.

M. Lujanbio

Denak " Amets zein da" ta
Amets non dan galda
ingurun beti dauka
kriston porru salda.
Lagunmina naiz baino
hau normala al da?
Gehiago ematen det
zure guarda espalda.

A. Arzallus

Guarda espalda txikia
hori da problema.
Badakizu ordua
aurreratu dena;
mozkortzean etortzen da
hona jende dena...
Zeu ere mozkortzea
ez al da onena?

Nik edaten det eta
eiten dizut kasu
baina hala're prexko
ta erne naukazu;
eta nerekin horren
lehorra zera zu
hainbeste eulirentzat
ze gozo daukazu?

Bati bizkarrekoa
besteai muxua;
besteai kaso egin
ze konpromisua!
Hortarako ze ote
daukadan goxua?
Itxoin pixkat han dator
Nire lehengusua.



Amets Arzallus.



Maialen Lujanbio.

Gaia: " Barkatu, barkatu, oraintxe jaso duzue abisua zuen kuadrilakoek auto istripua izan dutela, eta ospitalean daudela".

A. Arzallus

Han ikusten det lehengusu zaharra
ta gure auzoko Martin
beste ezezagun bat ere hor
ta hitz egiteai ekin.
Utz nazazue denek bakean
eta ez sartu nerekin
lehenbizi nire kuadrilakoak
nola dauden nahi dut jakin.

M. Lujanbio

Trago egiten ai ginen ahala
kolpe jo digu garunak
dei baten hotsak iritsi dira
oso notizi belzdunak;
mingarria da heldu beharra
horren extremo astunak
baina holakotan bereizten dira
jendea eta lagunak.

Holakoetan ikasten dugu
zinez lagunak nor garen
ta konfiantzaz aurreraxeago
maitausunik ere baden.
Jende guztia neukan bueltan ta
bazterrean utzia lehen...
Berrero ez det egingo eta
Barkatuidazu Maialen.

Orain horrek ez du garrantzirik
nahiz barkamena zilegi;
blokeatuta geratu gera
ta elkarri begira segi.
Basoa hartu ta harrika bota
det milatan hautsi bedi
baina basoa botatzerako
askotan beranduegi.

Nahastu ditugu lehen ezker-eskuin
Nahastu ditugu goi ta behe;
probatu ditut bi kalimotxo
patxaran ta JB.
Maialen orain egin behar dut
ur botila baten jabe
gaur behintzat heldu nahi dut etxera
istripurik izan gabe.

Juergazaleak gera, badegu
afizio nabarmena
ordu txikitán bueltatzen gera
errepidetan barrera;
mila eskapada kontatu degu
autotik juxtu irtena
baina iristen da eskapada bat
besteek kontatzen dutena.

Joan den urteari begira

Aurten ere, iaz bezala, Oilategitik-en azken alea kaleratu zenetik, herrian gertatutakoei gainbegiradaxoa eman nahi izan diegu. Horretarako, www.alkiza.net helbidean argitaratu ditugun albiste interesgarrienak aukeratu eta sailkatu ditugu.

HAURTZAINDEGIAREN INAUGURAZIOA

Irailaren hasieran, haurtzaindegi berriak ateak zabaldu zituen. Inaugurazio ekitaldia egin zen lekua ikusi nahi zuen guztiarentzat. Ondoren, 8ak aldera, moka-bat eskaini zitzaion bertaratutakoei. Irailean bertan hasi ziren lanean bertako zaintzaileak. Ikasturte osoan zehar zazpi haur zaindu dira.

CLOTILDE GOENAGA HIL ZEN

Berri tristea heldu zitzaigun irailaren 23an Albiztegi baseritik. Bertako amona, Maria Clotilde Goenaga Uria hil zen, 86 urte zituela. Bagenekien pattal samar zebilela azken boladan, eta zuen gaixotasunaren ondorioz, betiko utzi gintuen.



Maria zutik daudenen artean, ezkerretik hasi eta bigarrena da.

JUBILATUAK TREVIÑO ETA FRIAS HERRIETARA

Urriaren 17an, asteazkena, herriko jubilatuak, Aiztondokoekin batera, goizez, Treviñora joan ziren.

Han, hamaiketako txiki bat egin ondoren, Frias herria bisitatu zuten. Bazkaria Medina de Pomar-eko La Alhama jatetxean izan zuten. Arratsaldean Miranda de Ebro bisitatu zuten.

2007 – 2008-KO IKASTAROAK

Hauek dira ikasturte honetan zehar Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak ikasturte honetarako urriaren hasieran martxan jarri zituen ikastaroak:

Haurrentzat: Kirola ezagutuz (Lourdes Gorostegi, 10 haur), Eskulanak (Izaskun Lazkano, 7 haur), Ludoteka (12 haur), Pelota (Luis Mari Sorarrain, 7 haur) eta Euskal Dantzak (Elixabet Larrañaga, 10 haur)

Helduentzat: Euskal Dantzak (Elixabet Larrañaga, 6 pertsona), Soinketa (5 pertsona) eta Pilates (11 pertsona)

ISTRIPUA HARROBIKO ERREBUELTAN

Uriaren 12an, ostirala, gaueko 9ak eta laurden aldera, istripua gertatu zen harrobiko errebueltan. Suertez, ez zen larria izan, autoan zihoaztenei ez baitzitzaizkien ezer ere gertatu. Autoa, errepidetik atera, zuhaitz bati jo eta horrek eusten ziola geratu zen. Badirudi gidariak deskuidoa izan zuela.

IDAZKARI ALDAKETA

Urriko bigarren hamabostaldian, Eukene Muñoa, ordura arte udaletxeko idazkaria izandakoa, Foru Aldundian hasi zen lanean. Hori zela eta, idazkaria berria etorri zen udaletxera. Horren izena Ane Gomez da, Lazkaokoa, Gaintzan bizi dena.

DIRULAGUNTZAK

Alkizako Udal batzarrak 2007 urteko irailaren 25ean, egindako ohiko bilkuran "Alkizako herritarrei 2007-2008 ikasturterako kultura, kirola, musika eta euskararen jarduerak burutzeko diru laguntza deialdiaren oinarriak" onartu zituen.

Modu honetan interesdunek aipaturiko oinarriak udaletxeko idazkaritzan eskuratu zituzten. Dirulaguntzak ikasturtean zehar banatu ziren.

MENDI IRTEERA LARRAULEN

Eguraldi eta giro ezin hobearekin egin zen urriaren 28an, Aiztondoko Kultur Zerbitzuak antolatutako mendi irteera. Larraul, Alkiza eta Adunako haur eta gurasoak izan ziren gehienbat, bertan parte hartu zutenak. Azpimarretzekoa izan zena haur txikienek ere nola erantzun zuten ibilaldiak zituen aldapen aurrean. Paraje ikusgarriez gain (Murgileko gailurra barne), bertako biztanleen gidaritzapean, baserri ikusgarriak kanpotik zein barrutik ikusteko aukera izan zen gehien eskertu zutena bisitariek. Aparta izan zen Larrunbide-Etxeberri baserrian taldeari egin zioten harrera eta eman zizkieten azalpenak.



SAN MARTIN JAIK 2007

Giro ezin hobean ospatu ziren San Martineko jaiak. Eguraldiak asko lagundu zuen, baita jendearen animoak ere. Guztia ostiralean hasi zen Tsunami filmaren proiektioarekin. Larunbatean, haur jolasak izan ziren arratsaldeko 4retan hasita. Aurreikusitakoa baino partaidetza askoz handiagoa izan zen, eta jolas batean behintzat, ezin izan zuten parte hartu nahi zuten guztiek. Txerri harrapaketa zen ikusmira handien sortu zuena. Oraingoan sariak zeuden irabazleentzat, eta horiek Javier eta Mattin Gorostidirentzat izan ziren. Jarraian, txerrien zozketa egin zen eta Etxabe eta Goiztiri etxeetara joan ziren aurtengoak (Olatz Iruretagoiena eta Karmele Morea)

Ondoren, mus eta eskoba txapelketa azkarrak jokatu ziren herriko tabernatan. Azpimarretzekoa izan zen partaideen kopurua: musean 12 bikote eta eskoban, berriz, 9. Irabazleak musean Balduino Alfonso eta Jose Manuel Otegi izan ziren, eta bigarren sailkatuak, berriz, Jose Mari Aranzabe eta Ignacio Iruretagoiena. Eskoban Amaia Martinez eta Irati izan ziren txapelduinak, eta txapeldunordeak, Marisabel Aranzabe eta Ixiar Otaegi.

Amixuri taldeko kantuzaleak eta hainbat herritatik etorritako lagunak kantu-jira egin zuten, tabernaz

taberna eta kalez kale, giroa alaituz. Ondoren, afaria izan zuten.

Igandean meza nagusia izan zen hamarretan, eta bertan Eresargi Billabonako abesbatzak parte hartu zuen. Lau t'erdiko San Martin Pilota txapelketaren finalak izan ziren hamaikak aldean, eta aurtengo txapelduna Eñaut Sorarrain izan zen, bigarrena, berriz Igor Aranzabe.

Hau amaitu bezain pronto, Herri kirol saio ederra ikusteko aukera izan zen plazan. Aizkoran Jose Mari Mendizabal eta Alberto Roteta, Jose Mari Olasagasti eta Joakin Garmendiaren aurka aritu ziren. Trontzan, berriz, herritarra den Aitor Roteta eta Andoni Reza-balek, Jokin eta Unai baliarraindarrak izan zituzten aurkari.

Ordu biak aldean, herri bazkaria izan zen frontoian. 180 lagun inguru bildu ziren bertan, eta kanpo giroa hotza bazen ere, ez zen berotasunik falta izan.

- Arratsaldeko 5etan, 1. Kamio Gurpil "Jira eta bira" lasterketa egin zen. Egundoko arrakasta izan zuen, inork ez baitzuen espero horrelako partaidetzarik, bai korrikalarien aldetik baita ikusleen aldetik ere. 21 izan ziren parte hartzaileak, eta sari bikainak banatu ziren amaieran. Ibilbidea 2 kilometro eta 200 metrokoa zen, 40na kiloko gurpilekin. Lasterketa honen sustatzailea Balduino Alfonso zen, baina gaixotasun bat zela eta, ezin izan zuen bertan egon. Irabazlea Imanol Ugalde gertatu zen, bukaera estu baten ondoren. Bigarrena Giorgi errumaniarra izan zen, eta hirugarren Xabier Mujika sailkatu zen. Irabazlearen denbora 19 minutu eta 12 segundokoa izan zen.
- Trikitrixa alai batekin eman zitzaion, ondoren, bukaera 2007ko San Martin jaiari.



Herri bazkaria herriko frontoian.



Eskoba txapelketako partaideak.

SAHARAUIENTZAT JANARI BILKETA

Urtero bezala, abenduan eta urtarrilean, "Piztu itxaropena" izenez ezagutzen den kanpaina jarri zen martxan. Kanpaina horren helburua saharar errefuxiatu kanpamenduetara eramateko elikagai bilketa egitea zen. Horretarako, herritar guztion laguntza eskatu zen, bakoitzak ahal zuen neurrian ekarpena egin zezan. Alkizarrek bikain erantzun zuten, eta hauek izan ziren bildutako elikagaiak: azukrea, atuna, arroza, lentejak...

JUBILATUAK SANTA LUZIKO PERIRA

Santa Luzia eguna ospatzeko Zumarragako perira joateko irteera antolatu zen abenduaren 13an. Goizean, perian bueltatxo bat eman ondoren, Zeraingo Oiarde nekazal turismoan bazkaldu zuten. Bazkaldu ondoren, herri horretako museo etnografikoa ikusi zuten.

GABONETAKO IRTEERAK

Ohi den moduan, Eguberrietako oporrak direla eta, herriko haurrentzat bi irteera antolatu ziren, urtarrilaren 4an. Bata, 6 eta 12 urte artekoentzat, goizez, Donostiako PIN parkera eta arratsaldez Txuri Urdinera. Janaria etxetik eraman zuten, eta irteera arrakastatsua gertatu zen. Bestea, berriz, 2 eta 5 urte bitartekoentzat izan zen. Hori egun erdikoa izan zen, eta Donostiako Pin parkera joan ziren egun berean. Irteera horretan mila opari zozketatu ziren, eta herritar batzuk ere izan ziren sarituak.

ESKOLAKO POSTRE LEHIAKETA

Urtero bezala, lehen hiruhileko azken egunean bazkaria egin zen ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Ohi den moduan, bazkari ostean, postre lehiaketa egin zen. Iazkoan, Ainara Zurutuza gertatu zen garaile. ZORIONAK

OLENTZEROK EZ ZUEN HUTSIK EGIN

Gabon egunean ez zen kantarik eta ospakizunik falta izan gure herrian. Goizeko 8retan bildu ziren herriko gazteak, eta kantatzeari ekin zioten.

Goizeko 9etan, eskolako ikasle eta gurasoak bildu ziren, eta azken urteetan ohitura bihurtu den moduan, Olentzerori ongi etorria egin zioten, eta baita haren opariak jaso ere. Giro ezin hobean ospatu zen ekitalditxo hau, eta ondoren kantura abiatu ziren.



Olentzero Aratzekin eskolan.

GAZTEEN 2. ESKUKO MATERIALAREN AZOKA

Abenduaren 28an, Kaxkagor taldeak antolaturik, 2. eskuko materialaren azoka egin zen Alkizan. Talde honetan, herriko gaztetxoak (12 - 16 urte bitartekoak) daude. Aldez aurretik materialaren bilketa egin zen, herritarren laguntzarekin. Salmentak handiak izan ez baziren ere, gustura geratu ziren lehen saiera honekin.



PATATA TORTILLA LEHIAKETA 2007

Abenduaren 28an, Alkizako 3. patata tortilla lehiaketa egin zen. Hemezortzi tortilla egileek hartu zuten parte. Oraingoan, aurreko urteetan ez bezala, sari berezia zegoen itxura oneneko tortillarentzat. Epai mahaikoek ez zuten lan erraza izan, asko eta onak baitziren aurkeztutako tortillak. Itxura oneneko tortillaren irabazlea Tomas Lizardi izan zen. Eta lehiaketa nagusiko tortilla onenaren saria ere, ustekabean, Tomasek berak jaso zuen. Bigarren sailkatua Iñaki Auzmendi izan zen, eta hirugarren sailkatua, berriz, lehen edizioan irabazle gertatu zen Jose Ignacio Gorostidi. Epai mahaia emakumezkoek osatzen zuten: Uxue, Mertxe eta Itsaso.

Ondoren, gaztainak izan ziren, behingoagatik ondo erreta atera zirenak. Aitor Sorarrain izan zen horretaz arduratu zena. Urtero bezala, eta Unai Sorarrainek urtea betetzen dituela eta, festa polita antolatu zen haren inguruan, opari eta guzti. Zorionak Unai.

Sariak Udalak jarriak ziren, eta antolatzaileek bereziki eskertu nahi izan zuten Ostuta jatetxeko arduradunak azaldu zuen jarrera eta egin zuen ahalegina den dena primeran irten zedin. Eskerrik asko, Mari.



Epai mahaikoak.

URTARRILEAN ANTOLATUTAKO IKASTAROA

Urtarrilean antolatu zen beste ikastaro bat adin guztientzako pertsoneri zuzendua. Gorputzaren luzatze ariketak eta arnasketa lantzen ziren bertan. Ikasturtearen amaiera arte iraun zuen ikastaroak, eta bertan adin guztietakoek hartu zuten parte, emakumezkoek, batez ere. Irakaslea Gurutze Irazusta, terapeuta lasartearra izan zen.

KZ-GUNEAN IKASTAROAK

Otsailean hasita, ikastaroak antolatu ziren KZ-gunean. Lau talde antolatu ziren. Ikastaroak 6 ordukoak izan ziren, eta Kultur etxeko KZ-guneko gelan egin ziren. Taldeak honela banatu ziren:

1.- Nekane Roteta; Elena Cajaraville; Miren Gorostidi;

Mari Sol Urretabizkaia; Jaione Iriarte; Yurre Goia eta Silvia Ruiz de Gauna

2.- Marian Ugartemendia; Gillermo Otegi; Mirari Aranburu; Maria Jesus Zubeldia eta Harry Nijmeijer.

3.- Aitor Roteta; Jon Roteta; Eduardo Roteta; Iñaki Altuna; Jose Ramon Aranburu eta Balduino Alfonso.

4.- Itziar Ibarbia; Sonia Artuzamonoa; Olatz Iruretagoiena; Aitor Sorarrain; eta Jose Luis Segurola

KALDEREROAK ALKIZAN

Urtarrilaren 26an, larunbata, lehenengo aldiz etorri ziren kaldereroak Hungariatik Alkizara. Arratsaldeko 17:30etan hasi zen guztia, Kanposantu aldetik karroza abiatuz. Ondoren, jolasak izan ziren plazan, eta hauek amaitu bezain pronto txokolatea zegoen guztientzat. Gero, kalejira egin zen herriko erdigune inguruko etxetan, eta hori amaitu ostean, afaria izan zen Elizegi tabernan, norberak ekarritakoa bertako edariekin osatuz. Nahiz eta akzidentatua izan (txakurra harrapatu baitzuen traktoreak), giro ezin hobean ospatu zen guztia, eta jendea oso pozik geratu zen.

EHIZTARIAK MADRILEN MANIFESTALDIAN

Erniope Ehiztari Elkarteak antolatuta, herriko ehiztariak, beste hainbat elkarteko ehiztariekin batera, Madrilén izan ziren martxoaren 1ean. Bertan, ehizari buruz Gobernuak ateratako lege berriarena aurka protesta egin zuten. Manifestazioa goizeko 12:00etan abiatu zen Madriléko Lima plazatik (Santiago Bernabeu futbol zelaiaren inguruan), eta San Juan de la Cruz plazan amaitu zen.

OTSAILAREN 24AN IBILALDIA ALKIZAN

Aiztondoko Zerbitzu Mankomunitateak antolatuta, eta lehen Larraulen egin zen moduan, mendi irteera egin zen Alkizako inguruetan. Bertan, haurrek eta haien gurasoek hartu zuten parte. Ibilbidea Santiago ermitatik atera zen, eta Etxabe-txiki baserritik pasa eta gero, Mendiolatik barrena, Agina eta Basatxabal baserrietara joan zen. Zumitz berriko karobia eta Zumitza baserria ikusi ondoren, berriz ere Alkizara itzuli ziren. Nabarmenezkoa izan zen herritarrek prestatu zituzten jolasak (Altxorraren bila, bereziki). Partaidetza handia izan zen eta bertan izandako guztiak oso gustura ibili ziren.

AGENDA 21EKO BILERA

Otsailaren 22an, ostirala, Agenda 21eko bilera egin zen Kultur etxeko bideo-gelan. Asistentzia ohikoa baino handiagoa izan zen, parte hartzea bezelaxe. Lehendabizi Foru Aldundiko teknikari batek ordura arte emandako pausuen jarraipenaren berri eman zuen, adieraziz, Alkizan egin beharrekoak abiadura egokian ari zirela egiten. Ondoren eztabaida sortu zen.

Jarraian. deialdian aipatzen ziren lau puntu nagusiez aritu ziren bertaratutakoak:

- 1.- Fosa septikoa. Luze hitz egin zen gai honi buruz. Udaleko arduraduna den Koldo Jauregik eman beharreko azalpenak eman zituen. Ondoren, interbentzio asko egon ziren, kontuak argitu nahian, eta gaiari buruz iritzia eman nahian ere.
- 2.- Haur txokoa. Udalak test bat bidaliko zuela etxeetara esan zen lehenik eta behin. Test horren arabera, jakin nahi zen zenbat ziren interesa zutenak, (ordutegia barne) zerbitzu hau Alkizan martxan jarri zedin.
- 3.- Taxi-busa. Imanol Olanok, Tolomendiko teknikariak informatu zuen Foru Aldundia azterketa egiten ari zela taxi-busa herri txikietan jartzearen komenentziari buruz, ikusita lineako autobusak hutsik dabiltzala, eta horien kostea handia dela. Hori dela eta, aurreko puntuan bezala, Udalak Alkizan eskaera zenbaterainokoa izan daitekeen jakiteko, test-a bidali zuen etxeetara-
- 4.- Eskolari buruzko berriak. Udalak informatu zuen Hezkuntza Sailarekin harremanak zituela, Alkizako eskolaren egoera zela eta.

Honelaxe, giro onean, amaitu zen bilera.

IPUIN KONTALARIA

Galtzaundik antolatuta, Idoia Sanchez ipuin kontalarai martxoaren 6an izan zen Alkizako liburutegian. Arratsaldeko 5:00etan.

FRONTENIS TXAPELKETA

Martxoan eman zitzaion hasiera Frontenis Txapelketari. Oso arrakastatsua izan zen. Hogei gizonezko eta hogeit hamar emakumezko aritu ziren aste buru zein astegunetan elkarren indarrak neurtzen. Finalak maiatzaren 17an (aste kulturalaren barnean) jokatu ziren. Gizonezkoetan txapelkunak Xabier Gabirondo eta Iker Altuna izen ziren, txapelkun ordeak berriz, Julen Hernandez eta Unai Sorrairen. Emakumezkoetan Mariaje Barandiaren eta Naroa Gorostidik jantzi zituzten txapelak. Bigarren sailkatuak Jaione Iriarte eta Josune Gabirondo izan ziren.



Finaletan parte hartu zuten pilotariak.

ALKIZARRAK ESKIATZEN

Martxoaren hasieran Frantziako Cauterets herrian alkizarrez osatutako taldea izan zen eskiatzen. Ondo baino hobeto aritu ziren, eguraldiaren laguntzarekin. Ustekabe txikiren bat izan zuten arren, ez zitzairen datorren urtean esperientzia errepikatzeko gogorik kendu.



JUBILATUAK GUGGENHEIM-ERA

Martxoaren 12an, jubilatutako Bilbora egin zuten irteera. Goizean Guggenheim museoa ikusi zuten. Artxanda Montenegro jatetxean bazkaldu ondoren, Portugaletetik Santurtzira joan ziren.

EMAKUMEEN EGUNA

Martxoaren 8an, ohi den moduan, Emakumeen nazioarteko eguna ospatu zen Alkizan ere. Aurten goan, afaria Ostatu jatetxean izan zuten. Hogeita hamabi emakume herritar bildu ziren. Ez zen falta izan Udalaren oparirik, oroigarri moduan.

JUAN JOSE ZUBIAURRE HIL ZEN

Martxoaren 29an, hil zen Juan Jose Zubiaurre Iribarren. Dakizuen bezala, Arritza baserrian jaioa eta bertan bizitakoa zen. "Astoa" ezizenarekin zen ezagunagoa inguru hauetan. 78 urte zituen.



Gazte garaian, lagunekin. Zutik daudenen artean, ezkerretik hasita, bigarrena da Juan Jose.

AHALDUN NAGUSIAREN BISITA

Markel Olano Ahaldun nagusiaren bisita izan genuen Alkizan. Udal osoak egin zion harrera Udaletxearen aurrean. Ondoren, bilkura egin zen berarekin, eta herrian dauden proiektu eta beharren berri eman zitzaion.

Jarraian, oinez, herriko erdialde osoari buelta bat eman zioten. Asko gustatu zitzaion. Ahaldun Nagusiarekin Eneko Goya, Errepideetako diputatua eta Jesus Argiñarena, Nekazaritzako teknikoa etorri ziren. Azkenik, Ostatu jatetxean, bazkaldu zuten bildutako guztiak. Euskal Herriko Itzuliaren 5. etapa Alkizatik pasatzen zela eta, txirrindulariak zuzenean ikusteko aukera izan zuten.



ZINEMA EMANALDIA

Apirialaren 19an, larunbata, arratsaldeko 5etan, Zinema emanaldia izan zen Kultur etxean, Beleburupe Guraso Elkarteak antolatuta. Ikusi zuten zen pelikula: "Sagutxo Perez", izan zen.

HERRIKO GAZTETXOAK IKAZTEGIETAKO DANTZARI TXIKI EGUNEAN

Joan den udazkenean hasi ziren euskal dantzak ikasten herriko 5 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoak. Jendaurrean aritzeko adinako maila lortu zutela eta, apirilaren 27an Ikaztegieta Dantzari txiki egunean hartu zuten parte. Bertan, Alkizakoez gain, beste hainbat herritako dantzariak aritu ziren.



ERNIOPEKO MARTXA

Maiatzaren 11n, igandea, Erniopeko VI Mendi Ibilaldia egin zen. Aurtengo edizioan bi ibilaldi antolatu ziren, bata luzea, 48,7 kilometrokoa, eta bestea (lehen aldiz egiten zena) motzagoa, 25 kilometrokoa. Abiapuntua eta helmuga Alkiza zuten bi martxek, eta parte hartzaileak hirurehundurik gora izan ziren. Ondo baino hobeto prestatuak etorri ziren mendizaleak, hamabi bakarrik izan baitziren ibilaldia bukatzea lortu ez zutenak. Arratsaldeko 6:00 etan Mendi materialaren zozketa egin zen.



Frontoian jarri zen azken kontrola.

GUTUN LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

Maiatzaren 11n, igandea, arratsaldeko 6:00etan Alkizako Kultur etxeko gela anitzean, Aiztondoko II: Gutun Lehiaketaren sari banaketa egin zen. Aurtengo honetan, parte hartzaileek naturari buruz egin behar zuten euren lana. Adin eta maila guztiak kontuan izanda, berrogeita lau izan ziren aurkeztutako lanak.

LAPURRETA ALKIZAN

San Isidro egunean, goizaldean, lapurreta egin zuten Ostatu jatetxean. Ate nagusitik sartu omen ziren, sarraila desmontatuta, eta 42 pulgadako telebista eraman zuten. Era berean, Elizegi tabernan ere salatu ziren sartzen, sarraila hautsiz, baina atea barrutik morroiloak zituenez, ezin izan ziren barrura sartu. Badirudi BMW auto gorri bat, modelo zaharretakoa, ibili zela ordu horietan inguru hauetan.

SAN ISIDRO 2008

Ostegun arratsean hasi zen guztia 20:00etan, Meza nagusiarekin. Ondoren, tradizio handia duen Afaria izan zen Ostatu jatetxean, giro ezin hobean. Ostiral arratsaldean haur jolasak izan ziren. Alkizako eskolako haurrak, bi egunetako txangoa egitetik zetoze, eta nekatuta zeudelako, laburra izan zen aurtengo saioa. Laburra baita ere izan zen, ondoren herriko gazteek antolatuta egin zuten "Altxo-

rraren bila" jolasa. Gauean, "Dones del lugar" liburua Kepa Fernandez de Larrinoak idatzi berri zuela eta, ia hogeit lagun bildu ziren Kultur etxean Kepa berarekin, zenbait konturi buruz hitz egiteko.

Larunbatean, goizez, irudimenez jantzi zituzten herriko haur eta helduek txorimaloak. Bazkalostean, euria zela eta, zenbait gorabehera pasa ondoren, azkenean Spinning (bizikleta musikarekin) saioa egin zuten frontoian. Hogeita hamar bizikleta ekarri ziren arren, jendeak bi txandatan ibili behar izan zuen, batzuk lekurik gabe geratu baitziren. Herriko jendea bildu bazen ere, kanpotik etorritakoak ziren nagusi, kopuruari dagokionez behintzat. Jarraian, Frontenis txapelketako finalak izan ziren. Gizonezkoetan txapel-dunak Xabier Gabirondo eta Iker Altuna izan ziren; emakumezkoetan, berriz, Mariaje Barandiaran eta Naroa Gorostidi. Gauean, Garagardo festa arrakastatsua izan zen, Frankfurt-etik zuzenean, eta egun honetarako bereziki ekarritako saltxitxekin.

Igandean, mendi martxa izan zen, bereziki gazte-
txoenen gozamenerako (sarien zozketa egiterakoan batez ere). Balduinok prestatutako ibilbidea eroso eta gustura egin zuten herriko ibiltariak. Amixuri kantu zale taldekoek hamaiketako eder bat oparitu zieten ibilbidea amaitutakoan. Jarraian herriko txikiaren dantza saioa izan zen plazan, Kantu-Jirarekin batera. Jendetza etorri zen kantura inguruko herrietatik. Herrian kantuan ibilbidetxoak egin ostean, bazkaltzera bildu ziren frontoian. Ikaragarria izan zen Amixurikoek egin zuten lana, bazkari guztia bertan prestatu baitzuten (babarrunak barne), goizean goiz lanean hasita. Bazkalostean, kantuekin batera, dantzak izan ziren aurtengoan, eta horiek izan ziren hain zuzen ere, egundoko arrakasta izan zutenak, gustura baino gusturago aritu baitziren, herritarrak zein kanpokoak, musikaren erritmoan, oinak astintzen.

Argazki rallya ere izan zen hiru egunetan zehar.



Nekane Roteta txorimaloa egiten.



Spinning egiten.

AIZTONDOKO KIROL TOPAKETA

Maiatzaren 31n, larunbata, ospatu ziren Zizurkilen Aiztondoko IV. Kirol Topaketak. Eguraldiak ez zuen ezertxo ere lagundu, eta arratsalde osoan euria gogotik egin zuen. Halare, giro bikaina izan zela esan dezakegu. Partaidetza ikaragarria izan zen, ehun eta hamar hurrek hartu baitzuten parte. Hiru gune antolatu ziren eta gune guztietatik haur guztiak pasatu ziren. Hurrek primeran ibili ziren eta ekintzetan gustura baino gusturago hartu zuten parte. Hasieran haur bakoitzari kamiseta bana eman zitzaion, eta amaieran, berriz, domina bana.



LEHENENGO JAUNARTZEAK ALKIZAN

Ekainaren 1ean, igandea, eguerdiko 12:00etan egin ziren Lehenengo Jaunartzeari zegozkion elizkizunak Alkizako San Martin de Tours Parrokian. Aurtengoan bi ziren gaztetxoak: Lete baserriko Igor Gorostidi Murua, eta Urruzola baserriko Haritz Aranburu Goia. Jakin izan dugunez, biek opari asko jaso zituzten, eta eguna ondo baino hobeto ospatu zuten familiarrekin.



URRUZOLA TXIKIKO JOSE MARI LARRARTE HIL ZEN

Ekainaren 2an, Urruzola txiki baserriko Jose Mari Larrarte etxe ondoko oilategian aurkitu zuten hilda, dirudienez, bihotzekoak eman ostean.



HERRITAR ASKO ZERAINGO ESKOLA TXIKIEN FESTAN

Ekainaren 8an Eskola txikien eguna ospatu zen. Eguneko lehen orduetan eguraldiak laguntzen ez zuen arren, autobusa ia bete egin zen Alkizatik Zeraina joateko. Haurrek eta gurasoek (40tik gora) primeran pasatu zuten bertan antolatutako ekintzekin. Haur txikienentzat batik bat jolas asko zegoen programatuta. Eguneko unerik garrantzitsuenetakoa Pirritx eta Porrotxen emanaldia izan zen, Eskola Txikietako kanta abestu eta dantzatu baitzuten. Datorren urtean Eskola Txikietako Jaia Berrobin ospatuko da.



Protagonismoa izan zuten astoek Zerainen.

BATAIOAK ALKIZAN

Ekainaren 8an, igandea, eguerdiko 13:30ean, bataio elizkizunak izan ziren Alkizako Parrokian. Lau izan ziren bataiatutakoak, denak neskak. Bi ahizpak ziren: Garro baserriko Olaia eta Amalur Rodriguez Ruiz, bestea Sagasti Zahar-eko Olatz Gorriti Torres, eta laugarrena Santiago ermitako Lide Altuna Aramendi.



KAXKARDI KIROL ELKARTEAREN IKASTAROAK

Aiztondo bailaran aritzen den Kaxkardi Gazte Kirol Elkarteak ekintzak antolatu zituen 2008ko uda parterako. 12 eta 18 urte bitarteko gazteak aritzen dira Kaxkardin. Hiru izan ziren antolatutako jardunak: Piraguismoa, Uda abentura, eta Aquapark-era irteera. Bakoitzak ordaindu beharrekoa 45 euro zen.

ARGAZKIEN ERAKUSKETA

Ekainaren 14an, larunbata, Kultur etxean, San Isidrotako argazki rallyan parte hartu zuten haur zein helduak bildu ziren. Koldobika Jauregiren gidaritzapean parte hartzaile bakoitzak bere argazkiak nahi zituen moduan kartulina batean jarri behar zituen. Batzuek moztu egin zituzten, besteek kartulinak margotu, beste batzuek bere horretan jarri zituzten...

Oso giro ederrean aritu izan ziren lanean ordu pare batez, eta amaieran argazki guztien proiektzioa prestatu zen areto handian. Dena bukatzeko Udalak jarritako txokolatada eder bat dastatu ahal izan zuten. Ea zaletasuna zabaltzen den, eta berriz errepikatzen den.



ESKOLAKO JAIA

Ekainaren 20an, ostirala, kurtso bukaerako ospakizuna izan zen Alkizako Herri Ikastetxean. Arratsaldeko 05:30ean Kultur Etxean ondorengo emanaldiak izan ziren: Lehenik Txulalai dantza eta bi urteko umeen dantzak. Ondoren antzerki emanaldia: Zortzi Antxume eta Hiritik Mendira antzezlanak. Arratsalde osoan zehar, ikusgai izan ziren ikasleek ikasturtean zehar prestatutako hainbat lan.

Aretoa lepo bete zen, eta bertaratutakoak primeran pasatu zuten.



Ikasleek egindako lanen erakusketa.

SAN JOAN SUA EKAITZAREN ERDIAN

Ekainaren 23an, astelehena, San Joan sua piztu zen Alkizan, urteroko usadioari jarraituz. Beleburupe Guraso elkarteak antolatuta, afaria egin zen frontoian. Horretarako guraso batzuek etxetik prestatutako zenbait jaki goxo ekarri zituzten. Tortillez gain,

pintxo eder batzuk izan ziren aurtengo berrikuntzarik nabarmenena. Edateko, berriz, ez zen falta izan urtero bezala Lete baserrian egindako sagardo bikaina. Frontoian egin zen eguraldi txarra iragarrita zegoelako. Eta egia esan, ondo baino hobeto bete zen iragarkia, afariaren amaiera aldera, egundoko euri jasa egin baitzuen.

Afaldu ondoren, musika nagusitu zen, eta berarekin batera herriko oinik arinenak aidean, saltoka, dantzan hasi ziren. Helduak, gazteak eta haurrak aritu ziren, eskutik helduta batzutan, norbere kasa bestetan, giro ezin alaiagoan.

Ohi baino beranduago, eta ekaitza baretu ondoren, sua piztu zen Ostatu eta Elizegi tabernen arteko tartean. Gaztetxoak kezu ziren aurtengoan, ezin izan baitzuten saltorik egin, sua zegoen lekuan zegoelako. Bestalde, suak piztuta minutu batzuk zeramatzanean, ekaitza berriro agertu zen, eta bertan zeude-nak blai eginda amaitu zuten. Suaren inguruan ez ziren abestiak falta izan, eta ekaitzak utzi bitartean, dantzan ere aritu ziren, azken urteetan bezala, Oriako Sorgin dantza dantzatuaz.



POLICARPO SAGASTUME HIL ZEN

Ekainaren 25ean Policarpo Sagastume hil zen, 49 urte zituela, gaitz luze baten ondorioz. Hileta elizkizunak, Amezketako San Bartolome eliz-parrokian izan ziren hurrengo egunean.

AURTEN ERE NAFARRAK GURE ARTEAN

Ekainaren 27an etorri zen Nafarroatik udan zehar, gure artean izan ziren gaztetxeoen lehen txanda. Beti bezala, oso gustura ibili ziren, aste batzuetan eguraldiak gehiegu lagundu ez bazien ere. Erretore etxean egiten zuten lo, eta egin beharreko zenbait ekintza, eta otorduak, berriz Otsamendi jatetxean egin zituzten. Abuztuaren erdialdean joan zen azken txanda.

Toponimia V

Alkizaren herriburua eta inguruak

Lehen helmuga gainditu dugu, baina ibilaldiak jarraitzen du

Bosgarren aldia da Alkizako toponimiaz ari garela aldizkari honetan. Aurtengo bilketan herri-gunekoak jaso dira eta lehendik bere inguruan argitaratuak ere berriro eman dira, hots, 2004ko eta iazko dozena bat, guztira 82 bat leku-izen. Azken bilketa honetan ageri denez, Alkizako plaza inguruan baziren hamabi bat baserri, gaur ordea, erdiak izaeraz aldatu dira, batzuk desagertu, Martitei, Urrutikoetxe eta Iri-

beitia, eta beste batzuk ukulurik gabeko, hau da ganbela-hotsik gabeko etxe-bizitzak dira, esaterako, Peru, Kabela, Elizei (taberna), Otsamendi (jatetxea) eta Katalandegi. Herri osoko joera nabarmentzen ari da herri-buruan, ukulu eta soroak kendu, baserria berritu eta etxe-bizitzak egokitzen, inguruko sailetan etxe-multzo berriak sortuz. Azken urteotako fenomeno soziologiko nagusia da hau, Alkizan.

Lau etxe-multzo berri eraiki dira azken bi hamarkadetan, herri-buru inguruan: Santio eta Perualdean bina. Zaharrenean etxe bakoitzari bere izen berezia ipini zaio: Eltzaurpe, Sagastizar, Lur-gain, Zutabe, Garej eta Gorosti-urrea. Beste hiru etxe-multzotan, berriz, multzo osoak leku-izen bakarra duenez, auzo tankera darama: Etxaburua (8), Santiago ermita bide (7) eta Perualdea (24).

Leku-izenon kartografia lana Enrike Larrarte erdi alkizarrak burutzen du, interneteko sarean mapa aurkitu, jaitsi eta bertan toponimia ale bakoitza txukun kokatuz: hiru bereizketa egin dira, baserriak, etxe-bizitzak eta leku-izen arruntak seinalatuz.

Oilategitik 2004an hasi eta aurten amaitu da Alkizaren ahozko toponimia jasotzea. Bost zati eta saiotan gauzatu da eginkizun hori: lehen bi urteetan Aldapa bailarakoak eta Ernio mendi aldekoak, hirugarren eta laugarren urteetan, berriz,


Arana, Sakamidra eta Azaldegia bailaretakoak, eta azkenik aurten herriburukoak bildu eta eman dira. Guztira 504 bat leku-izen, denak ahoz erabiliak eta Alkizako adinekoei jasotakoak: Aldapa eta Ernio aldean 183, beste hiru bailaretan 251 eta herriburuan 70, aurreko urteetako dozena kenduz gero. Alkizako toponimien artean, Luis M. Mujika, toponimia lanetan adituak 1.560 leku-izen bildu zituen artxibategietako dokumentuetan eta hauxe idatzi zuen bere liburuan: Alkiza-ko toponimia oso aberatsa da. Hemen ematen dugun 1.560 inguruko tokizen-multzoak aski nabarmen uzten du oparotan hori. Ez da meritu makala Alkizako eskritoretan dagoen toponimia altxorretik herena, hau da, hirutatik bat alkizarrak oraindik erabiltzen dutela. Hori frogatu da aldizkari honetan eta hori baserriarrei zor zaie, baina etapa hori akitzeaz dago.


Ahozko toponimiaren bilketa amaiturik eta gure lehen helmugara hel-

durik, gure eginkizuna ez da bukatu bere horretan. Alkizarrak historian zehar prezisioz, zehaztasunez hitz egin dute herrian zehar ibili, lan egin, informazioa eman eta dokumentuak idatzi dituztenean. Baserri, etxe, borda, karobi eta eraikuntzak, mendi, baso, belaze, soro eta sail bakoitzak du bere izena, pertsona eta abere orok zuen bezala. Gure toponimia aberatsa aztertu, sailkatu eta pedagogikoki irakatsi behar diogu edonori, denok elkarri, bertakoek kanpokoei, herrira bizitzera etorri direnei, irakasleek ikasleei, gurasoek seme-alabei. Horretarako elkarrizketak, mapak, krokisak, ibilaldiak eta txangoak zehatz-mehatz prestatu eta egin behar dira. Azken bolada honetan joera hau geroz eta gehiago ikusten da. Aurrera. Denok gaude zeregin horretan harrapatuak.

Jainkoak lagun, hurrengo urtean ere toponimia gaiak aldizkari honetan lekua izango du, bidea luzea da eta hasi besterik ez dugu egin. ■

Toponimia V Alkizaren herriburua eta inguruak





Toponimia I-ekoak

- (163) Barruti
- (164) Ispila
- (165) Iturburu
- (166) Arraspù
- (167) Leteberri (baserria)
- (170) Gibebe
- (171) Aldatseko zuloa
- (172) Txapiola
- (173) Mazurzulo
- (174) Soraluze
- (175) Itturiberri

Toponimia IV-koak

- (499) Barrutizar
- (501) Kalbariozâr

Toponimia V-ekoak

- (502) Elitxupi
- (503) Soaiz (etxe-tailerra)
- (504) Bentzalazpi
- (505) Etxazpi
- (506) Bengoetxe (bi baserri)
- (507) Arana (erreka)
- (508) Goiz-argi (etxea)
- (509) Iribeiti (baserri eroria)
- (510) Iribeitiko sailak
- (511) Urrutikoetxea
- (512) Bentzala-txiki (baserria)
- (513) Bentzala (baserria)
- (514) Atari-soroa
- (515) Udarrats-gorri (etxea)
- (516) Sâstizar
- (517) Kondesorota
- (518) Etxaburu
- (519) Elizasoro
- (520) Muñabe
- (521) Urtza
- (522) Etxazpia
- (523) Etxaburua (8 etxe), Erretoretxe-azpia
- (524) Urreta
- (525) Peru (baserri ohia)
- (526) Perualdea (22 etxe)
- (527) Martitei (baserri desagertua)


- (528) Maitei (baserria)
- (529) Maiteiko baratza
- (530) Maitone (baserria)
- (531) Bêko-plaza
- (532) Lete (oinetxea, nekazal-turismoa)
- (533) Kâbela (etxea)
- (534) Galtzara
- (535) Galtzâzpi
- (536) Santioazpi
- (537) Jazkun
- (538) Jazkun (etxea)
- (539) Santio-ermita
- (540) Santio-hilerria
- (541) Santioko aparkalekua
- (542) Guruzbidea
- (543) Eltzaurpe (etxea)
- (544) Santiago-ermita-bide (7 etxe)
- (545) Mendiko portua
- (546) Gorostidiurrea (etxea)
- (547) Garei (etxea)
- (548) Zutabe (etxea)
- (549) Lurgain (etxea)
- (550) Sagastizar (etxea)
- (551) Otsamendi (jatetxea)
- (552) Otsamendi-txiki (etxea)
- (553) Katalandegi-txiki (etxea)
- (554) Katalandegi-berri (etxea)
- (555) Zerrategia
- (556) Katalandegi (baserri ohia)
- (557) Elizegi (taberna)
- (558) Udaletxea, Ostatua, Karrera, Posta
- (559) Donjuanenea (etxea)
- (560) Donmigelenea (etxea)
- (561) San Martin Herri-eskola
- (562) Madrigal (etxea)
- (563) Gure-txokoa (etxea)
- (564) Frontoia
- (565) Mendikoetxea (etxea)
- (566) Pozadera
- (567) Erretoretxea, Kulturetxea, Barnetegia
- (568) Erretoretzeko bätza, Jolastokia
- (569) Goiko-plaza, Herriko-plaza
- (570) Zimitorioa
- (571) San Martin eliza edo parrokia

Euskal Herriak erreka asko dauzka. Erreka hauek lotu itzazu bakoitza bere luzera eta ibaiadar baten izenarekin:

ATURRI	69 km, Ezkurra
NERBIOI	75 km, Ibaizabal
BIDASOA	335 km, Errobi
ORIA	66 km, Asteasu
UROLA	46 km, Errezil
DEBA	58 km, Antzuola

GURUTZEGRAMA

1. Diru eta ondasunei atxikimendu handia izatea.
2. Erakunde, enpresa, pertsona eta abarren ezaugarria grabaturik duen tresna.
3. Bertsolarien huts egiteetako deiturak.
4. Korrespondentziaren jasotze-banatzte eta garraio-lana burutzen duten eraikina.
5. Zaldi gainean ibiltzeko boten atzealdean jartzen den metalezko pieza.
6. Oinarrizko garrantzia duena, Iparra, Hegoa, Ekialdea eta Mendebaldea dira.
7. Zerbait edo norbaitek leuntasuna galdu.



TXISTEAK

Bixente, New Yorken zegoela, telebista erosi zuen familiari ekartzeko.

-Han, zuen Euskal Herrian, ez al dago telebistarik ala? -galdetu dio saltzaileak.

-Bai, noski; baina askoz politagoak dira hemengo programak.

Maistra bat hegaztien ohiturak azaltzen ari zitzaizen ikasleei.

-Iparraldean hotz denean, -esan zien-, Euskal Herritik pasatu eta hegoaldera, Espainiara, joaten dira eguzki bila. Zeintzuk dira saldoan eta presaka hegoaldera joaten diren hauek?

Berehala erantzun zion betiko orojakileak:

-Turistak!

ASMAKIZUNAK ETA IRAGARKIZUNAK

1. Zer da behiak egiten duen lehen gauza eguzkia irtetean?
2. Zer egiten da Austriako herrietan eguzkia sartzean?
3. Gora igotzeko, behera jaisteko, zango duzu etxean, bat seguru asko.
4. Elurrak nauka, kareak ere bai, Azukrea goxoa, eta atzak, noski.
5. Haizea nora, hostoak hara, Baita ni ere horretarako nago eta.
6. Haginak ditu eta ongi zaintzen du etxea; Ez du egiten horzka, are gutxiago zaunka.
7. Sarri berandu uso zuria, Hegorik bako mezularia, Mihirik gabeko hizlaria.
8. Zer dela eta, zer dela eta, Kutxa txiki bat aizkoraz betea?
9. Zer dela eta, zer dela eta, Egunean okelaz beterik, gauean ahoa zabalik.
10. Zein da etxean isilik eta basoan kantatzen duena?
11. Mendi bien artean erdian ibarra eta usain txarra sarri. Hor ez du eguzkia ageri. Handi nahiz txiki, Argal nahiz gizena, esan dizut izena.

1. Itzala, 2. Ilundu, 3. Eskallera, 4. Kolore zuria, 5. Haize erro-
ta, 6. Giltza, 7. Eskutitza, 8. Ahoa, 9. Zapatak, 10. Aizkora,
11. Ipurda.

ERANTZUNAK

Ongi etorri Alkizara

2005 urteko Oilategitik aldizkarian, herrira bizitzera etorri berriak ziren zenbait auzokide aurkeztu genizkizuen. Geroztik, dezente izan dira gurera etorri direnak. Oraingo honetan, horietako batzuk ezagutzeko aukera izango duzue.



Hauek M^a Jesus Zubeldia eta Harry Nijmeijer dira. Santio ermita bideko 5 B etxean bizi dira. Harry holandarra da eta Maria Jesus, berriz, donostiarra. Japonian ezagutu zuten elkar duela hogeita zortzi urte. Hasera batean, harremana telefonoz mantendu zuten, eta berehala Maria Jesus Holandara joan zen bizitzera. Baldintza bat jarri omen zioten orduan elkarri, eta baldintza hori Harry jubilatzerakoan Euskal herrira etorriko zirela zen. Eta horrela gertatu da. Hasera batean, Frantzian begiratzen hasi ziren, gero Larraulen, eta azkenik Asteasun barrena zebiltzala, Alkizara etorri ziren. Bertan "Villas en construcción" zioen txartela ikusi zuten. Euria gogotik ari zuten, baina halere, txundituta geratu ziren hemengo paisaiarekin. Ramon Baldarekin hitz egin zuten, eta hortik aurrerakoa ezagutzen duzue.

Alkizan dena gustatzen zaie, batez ere hemengo lasaitasuna. Bertakoekin ez dute inolako arazorik izan, eta oso gustura daude. Badute Mikel izeneko semea, Donostian bizi den arren, batzuetan lotara etortzen zaiena



Carol Sanchez eta Ibon Vicente dira honako hauek. Maria Jesus eta Harryren bizilagunak dira. Argazkian beraiekin agertzen dena Mikel da, Ibonen semea. Mikel ez da Alkizan bizi, baina askotan etortzen da. Carol Granadan jaioa da, Madrilen lau urte eman zituen, eta gaur egun Villobanoko arropa denda batean aritzen da lanean. Ibon, berriz, jaiotzez asteasuarra den arren, Amarozen bizi izan da 5 urte zituenetik. Errotulazio enpresa bat du Irurako Laskibar industrialdean: Vicente errotuluak.

Lekua oso gustukoa dutelako etorri ziren Alkizara. Caroli gustatzen ez zaion bakarra da etengabe euria egiten duela hemen. Sekula ere joaten ez den laino bat omen dugu gure gainean. Eurenganako bertako jendearen jarrera da, azpimarratu nahi dutena. Ibonek udaberrian herrian jokatu den frontenis txapelketan parte hartu zuen, nahiz eta txapela janztea hurrengo urterako utzi.



Hona hemen Ion Gorriti, Almike Torres, Olatz Gorriti eta Harri eta Ergu. Sagastizahar etxean bizi dira 2005eko uztaila geroztik (Otsamendiren ondoan). Ion tolosarra da eta Almike bermeotarra, Urdaibai traineuren zalea. Ion mekanikoa da eta Tolosako Arretxe tailerretan aritzen da. Almike irakaslea da, iaz Tolosan jardun zuen, ikasturte honetan Ikaztegietan, eta datorrenean non izango den ez daki oraindik.

Alkizara etorri ziren elkarrekin non bizi erabakitzen hasi, eta Almikek errazago zuelako lekuz aldatzea. Ernio etxegintzan ikusi zuten Santio ermita bideko

etxeen iragarkia. Hona etorri, eta Sagastizahar etxearen berri izan zuten.

Herrian gehien gustatzen zaiena da herriko jendearen jarrera, eta mila ekintza antolatzen direla. Almikek dio zerbait aldatzekotan, itsasoa jarriko lukeela bertan. Ion ehiztaria da eta anekdota gisa kontatzen du herriko ehiztariekin harremanak izatearren, jaietan Erniope elkarteak antolatzen duen pitxoi tiraketan parte hartzea erabaki zuela. Zer gertatuko, eta txapeldun suertatu zen.

Olatz alaba urte honetako urtarrilean jaio zen, eta argazkian agertzen diren beste biak Harri eta Ergu ehiza zakurrak dira.



Hauk Angel Rivas, Miren Hurtado, eta horien alaba Andrea eta semea Daniel dira. Badute Yerai izeneko beste mutil bat, hogeitau urtekoa. Angel Errenterikoa da, eta Usurbilgo Luzuriaga lantegian aritzen da. Miren Andoaingoa da, eta Adunan Frutas La Huertan aritzen da administrazio lanetan.

Perualdea 6 etxean bizi dira, herriko kaskoan sartu Anoeta aldetik, eta ezkerraldera ikusten den lehendabizikoa. Hona etorri ziren kalean ez zutelako hiru seme-alabentzat etxe egokirik aurkitzen, eta hemen, berriz, nahiko leku izango zutela iruditu zitzaielako. Lehen Zizurkilen bizi ziren adosatuta batean, baina hango gelak oso txikiak ziren. Natura gustatzen zaie, eta egongelako balkoitik badute, guk geuk ikusi ahal dugunez, hartaz gozatzeko aukera nahikoa.

Herrian oso pozik daude, kotxea hartzea erraza egiten baitzaie. Oso gustura bizi dira hemen. Andrea 9 urteko neska da, eta askotan ikus dezakegu plaza inguruan, edozeinekin jolasteko prest.



Hau Rakel Montecelo da Oier eta Andrea seme-alabekin. Oierrek 4 urte ditu, eta Andreak 18 hilabete. Argazkian Daniel Leite senarra eta aita falta da. Lanean ari zen, Rakelen hitzetan "beti bezala".

Rakel Alegikoa da, eta Daniel Anoetakoa. Bi jatetxe dituzte: Txintxarri jatetxea Alegin, eta Agirretxe jatetxea Ezkio-Itsason. Azkenaldi honetan Ezkion aritzen dira lanean gehienbat. Alkizara 2004. urtean etorri ziren. Madrilen 4 urte lanean eman ondoren, Alegin 6 hilabetez bizi izan ziren, eta gero gurera etorri ziren. Leku lasai baten bila etorri omen ziren hona, eta Rakelek asmatu zutela aitortu digu. Herriko giroa gorai patzen du gehien, eta jendearekin harremanetarako izan duten erraztasuna, berriz, da eskertzen duena. Paisaiaren edertasunari ere ez dio garrantzirik kendu nahi.



Hauk Blanca Subijana eta Aitzol Arozena dira, euren hiru seme-alabekin: Ane 6 urtekoa, Markel 3 urtekoa, eta Unai 6 hilabetekoa.

Aitzol tolosarra da, eta Blanca, berriz, hondarribiarra. Urkullu etxean bizi dira. Aitzolek ibilgailuen txapa eta mekanika lantzen dituen tailer bat du Lizartzan. Zinegotzia da Tolosako udalean EAJ-ko ordezkari gisa. Blanca SGAEn aritzen da lanean.

Bizitzera mendi aldera joan nahi omen zuten. Alkizako aukera hau egokitu, eta hemen ditugu gure artean, oso-oso gustura. Zalantzarik gabe, lasaitasuna da gehien estimatzen dutena gure herriko Arana bailaran duten etxe berrian. ■

Alkizarrak

Sarobetarrak ote?

Fernando Etxebeste irakasleak Alkizan, 1978-1983 urteetan, bertako herri eskolan irakatsi ondoren, SAROBE nobela idatzi zuen. Liburua gure herriarekin loturik dagoenez, Eduardo Tormok Alkizako beste irakasle ohiak elkarrizketatu du.

“Sarobe” Alkiza herria da, ezta?

Bai. Alkiza eta Alkizatik ikusten den bailara osoa.

Alkiza, Alkizako eskola, gurasoak, baserri giroa, mendiak, ... dira azken batean zure bizipenen mamia. Zergatik aukeratu zenuen Alkizara etortzea?


Ba, nik uste dut buruan neukan ideal batek bultzatuta etorri nintzela hona.

Txikitatik ametsetan neraman bizitzeko leku idiliko, ideala zen Alkiza. Gogoratzen naiz adibidez, eztakit 17, 16 urterekin, askotan etortzen nintzela bizikletaz edo mendiz Erniozabaletik barrena. Eta goitik begira egoten nintzenez, inguru hau lekurik zoragarriena iruditzen zitzaidan. Gainera, Alkizari buruz hamaika istorio entzunda neukan, aitari entzunda hain zuzen ere, zeren bera ere hemen izandu baitzen praktikanterekin, hainbeste urtetan. Salamankako ikasketak bukatu nituenean eta soldaduskatik etorri nintzenez, buruan argi neukan Alkizara etorri nahi nuela. Eskolako bigarren solairuan jarri nintzen bizitzeko, garai hartan “maisu etxe” deitzen

zen etxe horretan eta lehendabizikoa ilusioa izan zen etxean zegoen tximeneta handi zahar bat funtzionamenduan jartzea negurako. Eta Belzalaga Txikiko Joxek lagunduta, egokitu, txukundu genuen. Hori izan zen niretzat sekulako ilusioa, neguan berotasuna mantentzea gelan eta berotasuna harremanetan ere. Hori izan zen lehenengo pausua.

Liburuan behin baino gehiagotan erreferentzia berezia egiten diozu zuk garai hartan eskolan erabilitako metodologiari: irteera asko, baserritar batzuei eginiko elkarrizketak, baserriei eginiko bizitaldiak etabar... Zer lortu nahi zenuen horrela?

Niretzat eskola etzen edifikazio soila, inguru guztia baizik. Beraz gure eskura zeuden elementu guztiak erabiltzen genituen, mendia, baratzak, baserriak, baserritarrak, ... Nik pentsatzen nuen ikasleen mundua erabiliz gero, alde batetik beraiek erosoago sentituko zirela eta bestetik beraiek jabetzen ba ziren, nik haien mundua, haien eguneroko errealitatea errekonozitzen, baloratzen nuela, gertuago sentituko nindutela. Ni ikasleengandik oso gertu sentitzen nintzen. Klaseak bukatutakoan ere. Gogoan dut, esate baterako, eguraldi txarra, elurra zen batean, Aginako Pello-ri etxera lagundu nion eta gero etxean solasean gelditu nintzen. Beste behin, Ernio aldera abiatu



Sarobe liburuaren azala.

eta garoa biltzen ari ziren. Ba beraiekin gelditu nintzen garoa biltzen. . . Eta era horretan nik gauza asko ikasi nuen; segan edo ardiak jaisten, Urruzolako Aitorrekin. Eta etxe askotan sartzen nintzen forma natural batean.

Zer eragin nabaritu zenuen ikasleengan?

Nire ustetan kontzeptu akademiko aldetik gehiegi garatzen ez genuen sentzazioa baneukan; baina eguneroko bizitzak eskaintzen zizkigun pasadizo, egoera edo gertaera bizi eta gordinetaz hitz egiten genuenez, giza baloreak lantzeko aukera izaten nuen eta beraientzat oso positiboa izaten zela uste dut. Mutil eta nesken arteko harremanak, frontoiaren erabilpena zela eta ume txikiak eta gazteen arteko harremanak, ... Haiek ni hain hurbil sentitzeak abantailak bazeuzkan ere, batzuetan konfiantza gehiegizko giroak errespetu falta sortzeko arriskua zuela sumatzen nuen eta behin baino gehiagotan guraso batek edo besteak niri komentatu ere.

Gurasoengandik maiz jaso zenituen horrelako kritikak?

Ba bai. Batzuetan esaten zidaten: “Fernando gogorrago egin behar



Fernando maisu ameslaria.

diezu ume horiei, bestela edozer gauza egingo dizute". Baina horrek ere ematen zidan nire buruarekin hausnarketa egiteko puntua. Eta gero ikasleekin komentatzeko okasioa. Ez ote zen hobe zigortzea baino, pixkanaka pixkanaka konbentzitzea, indarra, indarkeria erabili gabe. Nik askotan erabiltzen dut hemengo baserriar baten esaera "Gogo onez har dezakezuna ez hartu indarrez". Eta hori Alkizan hasi nintzen aplikatzen. Alkizak eman zidan aukera, egun naizena izateko. Nire bizitzan oso garrantzitsua izan da Alkizako esperientzia.

Zure ibilbide pertsonalean Alkizak paper garrantzitsu bat izan zuela dirudi.

Bai. Dударik ez. Adibide batekin azalduko dizut. Begira, askotan, klaseak bukatutakoan, buelta bat emateko ohitura neukan. Sarritan Santa Krutzeko harkaitzetara abiatzen nintzen. Eta han, harkaitz haietan banuen eskalatzeko trepada txiki bat, aereo batekin, oso polita. Ba, behin igo ondoren, ton-

torrean eserita, egoten nintzan begira, denbora pilo bat, Alkiza edo Sarobe guztiari begira. Eta askotan nik esaten nion nire buruari, nire "Ahotsari", edo Izaki misteriotsu hari: "Momentu hartan bat sentitzen nintzen bizitzarekin eta edozein baserriararekin, edozein eskolako ikaslerekin." Eta hura oso inportantea zen niretzat. Momentu haietan ez nintzen jabetzen zer zen sentzazio hura, sentimendu hura. Eta gaur ondo ulertzen dut Santa Krutzean sentitutakoaren garrantzia, pertsonak onartzea, maitatzea beraien osotasunean.

Garai haiek, Franko hil berriak zela, bereziak, ez?

Bai, bereziak, benetan. Zalantza-momentuak, askotan. Nik, hala ere, argi neukan zerbait egitekotan, nire buruarekin ados egon behar zuen. Nik ezin nuen onartu momentu haietan pentsatzen, sentitzen nuenaren kontrako gauza bat behartuta egitea. Hori ezin nuen jasan. Gaixotu egiten nintzen, bai fisiko, bai psikikoki.

Hala ere, hainbeste baloratzen zenuen mundu idiliko hura defendatzeko zerbait egin behar zela ikusiko zenuen?

Bai, hori da nire bizitzako beste kontraesan bat. Garai hartan marmarka onartzen nuen gizarte natural eta baserriar giroko bizimoduaren desagertzea gelditu. Orain, berriz, Alkiza politagoa ikusten dut eta badut beste ikuspegi bat; Alkizan badago bizitza hehiago, etxebizitza berriak daude eta eskola ere mantendu egin da. Ez dago garai hartan nik bizi izan nuen gordintasunik. Eta ez hori bakarrik, herri bizitza handiagoa ikusten da.

Garai hartako ikasle batzuk gogoan izango dituzu?

Beno, izen guztiak segur aski ez, baina batzuk behintzat bai. Gogoa dut, esaterako, Riki, nire etxean bertan bizi zen eta askotan etortzen zen tximeneta piztera edo 8:45ean esnatzera edo hitz egitera edo elkarrekin ateratzen ginen buelta ematera. 15 urte zeukan. Eta bere bi lagunak, Juantxo eta Pepi. Horiekin anai bezalako harremana neukan. Eta gero gogoan dauzkate ere Juantxo, Xebastian, Joxeluis, Mila, Urruzolako bi anaiak, Joxeramón eta Aitor, Aginako Pello, Garmendiko Mila eta bere anaia, ... Imanol eta Xabier, Peruko Aitor. Aitor izan zen nik, plaza hartu baino lehen, Erriotik nentorrela, ezagutu nuen lehenengo ikaslea. Plazan mutiko bat ikusi nuen eta Aitor ezagutu nuen; Aitor, Perukoa, bai... Bere arreba, Regina... Izaskun eta Iñaki, Aretakoak... Poliki-poliki etortzen ari zaizkit gogora.

Eta guraso baten bat?

Bai, bai, baita ere. Urruzolakoa esaterako. Askotan joaten nintzen harea. Gogoratzen dut egun batean nola gelditu nintzen afal-



Fernandoren Alkiza.

tzen Jose Ramonekin, eta han aritu ginen solasaldian, urte batzuk lehenago nire aitari bertan gertatutakoak komentatzen: herrira praktikante etorri zen eta Urruzolan gelditu zen apopilo. Beraiek oso txikiak baziren ere, oraindik gogoan dute nire aita.

Aita nongoa zen?

Aita Donostian jaioa; Amara berriko paduran zegoen baserri batekoa. Nik baserria ez nuen ezagutu, baina hangoa zen nire aitona. Eta amona Penaidegi baserrikoa, Oiartzungoa. Gerrate garaian eta geroztik une latzak jasan behar izan zituzten. Bere anai guztiak gudariak izan ziren eta Ondarretan preso izan ziren. Eta gero nire aitak, ahal zuenean, praktikante bukatu eta lehengo plaza hona etortzea egokitu zitzaion, bai. Berarengandik ikasi nuen mendi, baserri mundua maitatzen, baloratzen.

Alkizara bueltatuz, gogoan duzun pertsona gehiagorik?

Hombre, ba, nik momentu haie-tan Xegundo, Ostatukoa, asko

miresten nuen. Niretzat misterio bat zen nola zen kapaza gauean esaterako lantegian zortzi orduetan aritu eta gero, ehiza garaian batez ere, etxera joan, eskopeta hartu eta zuzenean mendira joateko. Behin, gogoratzen naiz, fabrikatik atera zen, niri deitu zidan, eguna argitu gabe oraindik, eta eskuan aizkora txiki bat zuela, eraman ninduen Santakruz aldera, bide zahar batetik. Zirt eta zart aizkoraz bidea irekiz eta ailegatu-takoan esan zidan: "Hara, segi hi bakarrik". Eta bai lortu nuen lrumugarrietatik zuzenean Erniora igo eta jaitea. Apustua hori zen: ordu eta erdi baino gutxiagotan egitea eta nik ordu eta hogeita bost minututan edo, hortxe ibili nintzen, bai. Bestalde, Urruzola eta Berandoaingo artzain giroa liluragarria zen niretzat.

Aipatu duzun liburua erdaraz idatzita dago.

Bai, hala da. Agian hausnarketak azaltzeko garaian, gartzelaniaz ohitura eta erraztasun handiagoz egiten dudalako. Eta horrela erabaki nuen.

Joxe apaiza aipatu duzu. Lagun izan zenuela dirudi.

Joxe oso pertsona berezia zen, nire ustez. "Unamuniano" era-koa. Bere kezka, galdera sakonekin. Horrela ikusten nuen. Nire ustez, berak ere hemen, Alkizan, bere eginkizuna bete zuen. Bera ere hona etorri zen zeozer bila eta asko maitatzen zuen baserrietako mundua. Gai batzuetan bazegoen bion artean horrelako "filing" -a. Beste batzuetan ez, noski. Kanpotik zetorren mundu berri harekin nahiko kritikoginen.

Bukatzeko jadanik edo momentuz, behintzat. Nola ikusten duzu Alkiza bezalako herri txikien etorkizuna, euskara eta baserritar munduko etorkizuna?

Zuk hori esatean, eta ni gure parean dauden etxe berri horiei begira. Bai, hortik maiz ibilita nago Maitegiko Martinekin. Nik ustedut hobera jo duela: etxe berriak egin dituzte eta biztanle berriak etorri. Eta horrek guztiak Alkizari astindu ederra eman dio, bizitasuna, poza ere esango nuke. Hala ere, askotan kezka bat sortzen zait, hemengo baserritarrek nola hartuko duten aldaketa hau. Gai izango al dira, batzuk eta besteak, hain kultura ezberdineko pertsonak, kultura berri eta halaber egoki bat sortzeko, garatzeko? Kezka hori badaukat. Herrikoek kanpotik etorritakoak intrusotzat ez ote dituzten hartuko. Hor dago kakoa, nire ustez. Kakoa eta erronka. Guztiona. Abantailak bai, izugarriak gainera, baita auzia ere. Arazoetaz kontziente izanik, ahalegin bereziak egitera beharturik gaude guztiok.

Eta horrela bukaera eman diogu elkarrizketa sakon eta atsegini honi. ■

Erniope Pilota Elkartea

Beste urte batez hemen gara Erniopeko pilotarian jarduerak azaltzera. Saiatu dira behintzat joan diren leku guztietan Alkizako elkarte hau gailurrean uzten, horretarako prestatzen dira gogoz frontoian eta beraien fisikoa landuz.

Irailean Gipuzkoako ligan 4 taldeek hartu zuten parte maila ezberdinetan, 3 talde finalera iritsi zirelarik:

URBIETA I - URRUZOLA

bikoteak semifinala galdu zuen

IRAOLA - OTAEGI

azpitzapeldun gelditu ziren

ARISTIMUÑO - MUJKA

ere azpitzapeldun

URBIETA - ZINKUNEGI

txapeldun geratu ziren.

Azken bikote honi Gipuzkoako txapeldun izateak Euskadiko ligan parte hartzeko aukera eman zien. Ondo baino hobeto aprobetxatu zuten aukera, naparrak, errioxarrak eta arabarrak menderatu ondoren, bizkaitarren aurka jokatu zuten finala Munitabarren. Partidu eder baten ondoren, Urbietak eta Zinkunegik osatutako bikotea izan zen irabazle. Honela, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak eskuratu zituzten,.

Emaitza hauek ikusita txapelketa askotan parte hartzeko gonbitea izan dute gure pilotariek. Burlanda, Logroño, Lodosa, Matiena

eta abarretan aritu dira. Batzuetan galdu eta beste batzuetan irabazi, baina beti gustura.

Elgetako lau t'erdiko txapelketa ospetsua amaitu berria da, bertan URBIETA II.k finala jokatu duelarik. Nahiz eta partiduari hasiera bikaina eman, azkenean ezin izan zuen txapela etxera eraman. Hala ere, benetan txapelketa ederra egin du.

Elkarte txikia izan arren, pilotari handiz osatuta dago, eta alkizarrak harro egon gaitzke. ■

AUPA ERNIOPEKO PILOTARIAK



Munitabarren Euskadiko txapela lortu eta gero.

Santiago ermita

HISTORIA

Alkizan dagoen eraikuntza zaharrenetakoa dugu Santiago Ermita. Nik arakatu ditudan liburu eta datuetan ez da agertzen eraikitze urterik. 1753. urriaren 22an, behinik behin garaiko gotzainak Alkizara egindako ikustaldian aipatzen da, berak herriko erretoreari ermita horren seroragatik serora titulurik eduki ezean, sakramentuak ukatzeko: Agirre Sorondo Antxon; Lizarralde Elberdin, Koldo "Érmitas de Gipuzkoa" liburutik hartua:

"1753ko urriaren 22an gotzain ordezkariak herriari ikustaldia egiten dionean eta ermita honetako serorak titulu ofizialik ez duela ikusira, hamabost eguneko epean exkomunioa zigorpean behar duela agintzen dio. Honez gain, erretoreari serorak, agindutakoa bete ezean, publikoki esan dezala eta sakramentuak uka diezazkiola agintzen dio".

Geroago, eta iturri berdinak dienez, 1771ko ekainaren 22an, ermita konpondu bitartean, mezak ematea debekatzen du Santiago Ermita bera egoera txarrean ikusita.

1832an Iruñako Gotzaindegiak Gurutze Santuaren ermita dese-



giteko baimena ematen du. Bide batez, 50 urte itxita egon ondoren, Santiago Ermitan zaharberritze lanak egiteko baimena ere ematen du.

Anoetan bizi zen Juan Bautista Bengoetxeari eman zitzaion pintura eta urreztatze lanak. Lan hauek egiten ari ziren bitartean aldarea eta sabaia zaharberritu egin ziren eta zoruan har losak ezarri ziren. Paretak zuri-berrituz, aulkiak berritu eta korua egin zen abeslarientzat. Sakristia


txiki bat ere egin bere leihoa eta guzti. Kanpai bat ere jarri zen. Presupuestoa 5.000 errealekoa izan zen baina 600gutxiago gastatu ziren. Ordaindu, erdia parrokiak eta beste erdia herriko biztanleen artean ordaindu zen.

ARKITEKTURA ETA ARTEA

Santiago Ermitaren eraikuntzak laukizuzen edo errektangulu era du. Izkinetan silarrizko harlanekoak dauzka eta gainerakoak silarriskakoa. Kanpotik 11,6m X



Santiago (Alkiza)



Santiago ermitaren erretaula.



8,40m ditu, teilatua bi aldeetara daukalarik. Sakristia laukia du 2,8m lauki bakoitzak dauzkalarik. Leiho bat ere badu. Burdinazko ezkila du atzealdean. Eliptiko erara egindako arkuak du sarrerako ateak eta honen eskuin aldean ur bedeinkatua duan harrizko ontzia. Atearen azpiko aldea panelatua dago eta goialdekoa egurrezko barroreak ditu. Atzealdean bi leiho ditu: bat koruan eta bestea honen azpian.

Ermita honen erretaula "kolorista" estilokoa da eta balio gutxikoa. Korintoar erako bi zutabeen artean Kristoren irudi bat dauka, atzealdean etxe batzuek pintatuta ikusten direlarik. Ezker eskuinaldean egur hutsak dauden baldak. Goialdean Santiago erromeslari irudi bat bere bordoi (bide-makila) eta guzti, eta hauek denon gainetik Jainko Aita eta Espiritu Santua uso irudian. Sagrarioa erretaulan dago. Aldarea ipar-mendebaldeantzat kokatuta

dago. Korua hasiera batean "U" eran eginda zegoen, orain "L" eran. Zorua har losaz osaturik dago. Ermita eta parrokiaren artean harrizko gurutze bidea dago.

ELIZKIZUNAK

Gurutze Santuaren Ermitara bere jai egunean, hau da, maiatzaren 3an, joaten ziren erromeslari. Meza ematen zen eta soroak keta zelaiak bedeinkatzen ziren. Behin desagertuz gero, elizkizunak Santiago Ermitan egiten ziren 1977. urtea bitartean.

Ostiral Santuan ere prozesioa egiten zen bere pasio irudi, gurutze eta pendoiekin parrokiatik Santiago Ermita bitartean. 1979an egiteari utzi zitzaion. Herritarrak kahatxoaren aurka eskatzen zuten gero atakan utzi behar zen txanponarekin gorputza igurtziz, otoitz eginez eta kandela piztuz. ■

Garai bateko eskaleak

Garai batean, etxez etxe limosna eskean ibiltzen ziren haiei deitzen genien eskaleak. Jende hori garai guztietan izaten da, azoka eta peri egunetan, denda handien eta eliz atarrietan. Orain orain bezela, baserrietan gutxi azaltzen dira; lehen hainbeste ez behintzat. Ni harritzen egoten naiz, gerra ondoko urte haietan, baserriarrak mantendu zuten eskale kopuru hura gogoratzen. Etxe bakoitzean 10 – 12 laguneko sendia; Estuarentzat gari eta babarruna urtero mordoan eman behar, askotan ordainik ez jasotzeko gainera; beste zerga eta gainerako hainbat gauza ordaindu behar, eta egunero bi edo hiru eskale ate ondoan: batzuek limosna, beste batzuek bazkaria eta afaria eta lotokia ere ematen zitzaizkien izaten ziren. Gauza guzti horiei aurre egin eta hala ere baserriarrak irauan egin zuten. Ez ziren edozein hori lortu zutenak.

Hemengo nekazariak behartsuak eta arlosteak ziralakoan egoten ziren herri handi eta hirietako jauntxo usteko haiek, eta jauntxoak ez zirenak ere bai. Baina ekintza horiei begiratu

ezkero, benetan aberatsak zirala aitortu beharra dago. Bestela, horrenbeste jende ez zuten mantenduko gure baserrietan.

Nik zazpi urtetik hogeitau urtera bitarte horretan, eskale asko eza-gutu nituan etxeko ate ondoan. Batzuk, gerran elbarritu eta lanerako gauza ez zirelako eskean hasiak. Beste batzuk, lan aukera gutxi zegoelako eta sasoirik onenak aldegin zirelako. Baina beste batzuk baziren lanik bat ere behar ez zutenak; berezko alperrak ziralako berrogei urte baino lehenago errezerkera eman ziotenak. Sasoi hartakoak eskean ikustek amorrua sortzen ziren baserriarrei. Halaxe ere, zerbait eman gabe ez zituzten uzten behin ere.

Nik hamairu-hamalau urte nituen garaian, gutxi gora behera, bazan eskale berezi bat Alkixa izenez ezagutzen genuena. Alkizako semea omen zen, eta horregatik izango zuen izen hori. Txurritik egin gabe zegoanean, oso gizon apala eta esker onekoa zan; eta ohitura handia zuan, limosna ematen bazuan lehenengo aldiz ikusten bazuan ere, honelaxe mintzatzeko:

–Eskerrik asko zure limosnagatik. Lehen ere hamaika mesede egina zera, eta gaur ere egin didazu.

Horrelaxe eskertzen zuana zen Alkixa eskalea. Baina garai hartan baserrietan nola sagardoa ugari izaten zan, batean eta bestean edanez zebilela, erasanda etortzen zanean, izugarritzko umorea ekartzen zuan: irrintzi egin eta bertsoa kantatu.

Nik ere bertsoarako zaletasuna nola gaztetatik nuan, hura etortzeko irrikitan egoten nintzen; eta, hura bertsoan hasten zanean, arreta haundiz entzuten nizkion. Baita batzuk gogoan hartzeko modua ere egiten nuan: baina horiek aurreragoan jarriko ditut.

Nire jaiotetxe Argin baserria bi bizitzakoa zan, eta bietako mandioako atea alkarren ondoan bezela zituen; eta, kanpoko lanak mende antxean ziranean, edo hartarako girorik ez zegoenean, emakumeak hantxe izaten zuten arratsaldeetako bilera, nola bizitza bakoitzean bina neska sasoirik onenekoak zuden, eta tarteka bere amak ere han izaten ziran, batzuk joste



lanetan eta besteak puntua egi-
ten, eta abar eta abar.

Horrelaxe ari ziren arratsalde
batean, non etortzen den gure
Alkixa eskalea, ederki jarria gaine-
ra, iritsi zanean, emakumeei begi-
ra jarri eta honela esan zien:

–Arratsalde on! Bai ederki zau-
detena! Pamilian bizitzea gauza
ederra da. Ni ere zentzuduna
izan banintz, gaur andrea eta
seme-alabekin biziko nintzan;
eta hara orain nola nabilen!

Orduan, neska haietako batek
galdetu zion:

–Zuk andregaiia ere izan zenduen?

Eta Alkixak, hori entzun zuanean, irrin-
tzia egin eta bertso kantari hasi zan:

*Gaztetan ni parrandan
Bertso eta kantuz
Aitak esaten zidan
Ibiltzeko kontuz
Maiorazkua nintzan
Nire tokamentuz
Baina galdu egin nuan
Hutsan pulamentuz*

*Aita ta ama neuzkan
Biak muturtuta
Etxera juteko ere
Negon bildurtuta
Nik zerbait egitera
Nengon behartuta
Eskean hasi nintzan
Zakua hartuta*

Lehenengo bi bertso hoiek lehe-
nago ere kantatzen zituen eta
ez nintzan harritu. Baina, hoiek
kantatu eta isildu zanean, berriz
ere neska haietako batek zirika-
tu egin zuen honela esanez:

–Andregaiaren konturik ez al
diguzu esan behar?

Eta Alkixa, irrintzia egin eta
kantari hasi zan:

*Andregaiia banuan
Auzoko Arantxa
Baina ni nola nintzan
Parrandero antxa
Gero beste batekin
Egin zuen martxa
Betiko galdu nuan
Halako neskatxa*

*Gaztetan ez izana
Nik pulamentua
Orain hargatik daukat
Pena ta lantua
Berandu akordatu
Betiko kontua
Hau da mutil zaharraren
Atarramentua*

Nik azkeneko bi bertso horiek
inoiz ez nizkion aditu. Behar
bada aurrez prestatuta edukiko
zitian. Halaxe ere, bertsolari
sena onekua zala aitortu behar.

Handik hogeita bat urtera, Laur-
gaingo eremu hartan bizi nin-
tzala, adinean aurrera joandako
alkizar bat gertatu zan bazkari
batean, eta harixe galdetu nion
Alkixa eskalearen arrastorik ba
ote zekian, eta oso ondo zekiz-
kian haren berriak. Esan zidan
gaztetan bertsotan ondo mol-
datzen zana zala. Hori jakin
nuanean, orduan sinistu nuan
azkeneko bertso hoiek bat-
batean kantatzeko dina zala
gure Alkixa. ■

Planeamenduko arauak

Aurtengoan zaila suertatu zait idazteko gaia aukeratzea. Udal ordezkari batek planeamenduko arauen gaia jorratzea proposatu zidan eta, egia esan, nahiko harritu ninduen gai horren inguruan idazteko gonbitea luzatzea. Gogoko gaia izan arren, kontuan hartuta hainbeste interes mugitzen dituen eremua dela hirigintzarena, horrelako gai baten inguruan iritzia ematen hasteak eragin zezakeen eztabaida arriskuaren beldur nintzen, eta artikulua xedea behintzat ez nuen hori izaterik nahi.

Hala ere, gaiarekin aurrera jarraitu nuen eta datozen lerroetan 2006. urtean Euskal Autonomi Erkidegoan onartu eta indarrean sartu den 2/2006 Legea aintzat hartuta, interesgarri gerta litezkeen hainbat eremu aipatuko ditut. Lege berriak ekarritako aldaketen zerrendatzea albo batera utzi, gauza teknikoetan sartzeak irakurleak aspertu baitezake, eta udal bateko herritarrentzat planeamenduko arau berri batzuen idazteak sor ditzakeen hainbat galderei erantzuna ematen saiatuko naiz.

Planeamenduko arauak herri baten etorkizuna diseinatzeko tresna dira eta herritarra udal administratibotik gertu eta parte hartze jarreran eduki nahi baldin bada, komunikabideetan hala entzuten da behin eta berriro, hirigintza eremuko hainbat kontzeptu argitzea baliagarri izan daiteke, nahiz eta beharbada batzuentzat jadanik ezagunak izango diren. Bestalde, aipatu dudan lege berriak espresuki azpimarratzen du herritarren parte hartze printzipioa sustatu beharra.

Hirigintza planeamenduko tresnak.

Udalerrri bateko lur eremuaren antolaketa jasoko duten dokumenturi hirigintza planeamenduko dokumentu edo hirigintzako plan deritza. Horien artean nagusia antolaketa plan orokorra da (Plan General de Ordenación), aurreko legean udal planeamenduko arau subsidiarioak zirenak ordezkatzera datorrena (Normas Subsidiarias de Planeamiento). 2013. urteko irailerako udal guz-

tiek antolaketa plan orokorrak eduki beharko dituzte behin betirako onartuta.

Plan orokorrak udal bateko hirigintza antolaketa erabaki nagusienak jasoko ditu, eta dokumentu berak aurreikusitako epeetan gauzatu beharko dira erabaki horiek. Besteren artean hurrengo edukiak jasoko ditu:

- Lurzoruaren sailkapena (hurrengo puntuan garatzen dena).
- Herriaren antolaketa edukiko duen estruktura orokorra.
- Lurzoruaren erabilera orokorrak finkatzea, kalifikazio bezala ezagutzen dena, hau da, sail bakoitzaren erabilera nagusia zein izango den zehaztea: etxeak, industria, ekipamendu publikoak etab.
- Egokiak diren sailen eraikigarritasuna zehazteko arauak.
- Herriaren ongizaterako dotazio publikoen kokagunea eta, zenbait kasuetan, ekipamendu beraren definizioa, adibidez eskola, frontoia, kultur-etxea etab.



- Araubide publikoaren babesean eraikiko diren etxebizitzaren kokagunea.
- Hirigintza antolaketa garatzeko programazioa.
- Ingurumena, paisaia eta kultur ondarea babesteko arau nagusiak.

Azken finean, plan orokorrak etorkizuneko herriaren bizkarrezurra edo eskema orokorra jasoko du. Ondoren, bigarren maila batean, plan partzial eta bereziek aurreko erabakiak garatu eta xehetasunak jasoko dituzte, adibidez etxeen ezaugarriak, bolumenak, azpiegituren ibilbidea etab.

Lurzoruaren sailkapena.

Lurzoruaren sailkapenaren bidez udalerrri bateko lur eremua hiru mota orokorretan banatzen da: hiritarra (urbano), ez hiritargarria (no urbanizable) eta hiritargarria (urbanizable).

Modu honetan, sail bakoitza lur mota baten barnean kokatuko da eta esleitutako sailkapenaren arabera, araubide juridiko zehatz bati lotuko zaio. Hau da, lurzoruaren sailkapenak lursail bakoitzean aurrera eramango diren erabilerak baldintzatuko ditu, eraiki daitekeen ala ez, zer eta zenbat eraiki daitekeen etab.

Lurzoru hiritarra edo hiri lurzoru: Jadanik eraikita dauden lur-

sailak aurkitzen dira mota honen barruan, eraikuntza eta urbanizazioa amaituta dituztenak.

Egoera fisikoak baldintzatzen du lursailaren izaera, beraz udalaren ahalmenak lursail hauen sailkapena egiterakoan erabat mugatuta daude. Zehazki, legeak dio hiri lurzoruaren sailkapena edukitzeko lursailak hurrengoak eduki behar dituela: ibilgailuentzako sarbidea (bide zolatuz egina eta herritarrek benetan erabilgarria), ur-hornidura, euri-ura eta ur beltza husteko sarea eta behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura. Hornidura horien tamaina, emaria, ahalmena eta tentsioa, berriz, eraikitzeko eta lurzoru okupatzeko lehendik

dauden eraikinei eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako eraikinei zerbitzu egokia emateko adinakoak izan beharko dira.

Lur mota honetan eraikuntzak txukun mantentzea izango da lurjabeen betebeharra.

Lurzoru ez hiritargarra: Rustiko bezala ezagutzen duguna da. Sail hauetan ezin da hirigintza eraldaketarik egin, ingurumen babes berezia dutelako edo zoru horiek ez direlako egokiak herriaren hazkunderako.

Lurzoru mota honetan nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eraman daitezke aurrera, nahiz eta Aldundia, Jaurларitza, Estatu edo Europar Batasuneko ingurumen arauak horrelako jarduerak ere mugatu ditzaketen.

Lurzoru hiritargarra edo urbanizagarria: Planeamenduko arauak idazten direnean urbanizatu eta eraiki gabe aurkitzen diren sailak dira eta eremu horietan etorkizuneko eraikuntzak aurreikusten dira. Plan orokorrak izaera hiritargarra edukiko duten eremuak zehaztuko ditu eta bakoitzaren erabilera nagusia eta eraikigarritasuna finkatuko ditu. Aldi berean, sailen eraldaketa aurrera eramateko denborazko programazioa jasoko du.

Lurjabeek planak aurreikusitako epeetan sailen eraldaketak eramango dituzte aurrera.

Udalaren ahalmena da lur hiritargarriko eremuak zehaztea bai kopuruan zein kokapenean, eta eraikigarritasuna finkatzearekin batera planeamenduko arauak idazterakoan hartzen diren erabakirik garrantzitsuenetarikoak dira.

Modu honetan, lurzoru hiritargarra sailkatzeari begira hurrengo

irizpideak kontuan hartzea beharrezkoa da:

- Etorkizuneko herriaren definizioa aurrez edukitzea. Benetan garrantzitsua da aurrez ezagutzea zein herri mota nahi den, zenbat hazi behar den, zein ekipamendu behar dituen etab. Helburu horiek lortzeko baliabidea lur hiritargarriko eremuak definitzea izango da.
- Herriaren antolaketa koherente bat egitea. Antolaketa berak emango du hazkundera nondik jo behar duen eta eremu bakoitzaren erabilera zein izan behar duen. Interes partikularrak alde batera utzi behar dira.
- Programazio egokia. Eremu ezberdinen eraldaketan lehenasunezko ordena finkatu beharra dago eta exekuzio epeak ipini.

Ingurumena eta paisaia babestu behar dira, basakeriak ekidinez.

Dotazio eta ekipamendu egokiak. Herri hazkundera eta antolaketa berriak behar berriak sortzen ditu. Beharrezko azpiegitura eta ekipamenduak planeamenduan jaso behar dira, sailak dohaineko lagapenez eskuratzeko, eta bere finantzatzerako aukerak aztertu, posible den heinean eraikitzeko aukera duten lurjabeen kontura eginez.

Planak onartzeko prozedura.

Plan orokorra onartzeko jarraitu beharreko pausoak hurrengoak dira:

a) Hasierako ikerketak:

Udalak lurzorua, populazioa, beharrak etab aztertze hainbat ikerketa eraman ditzake aurrera plana idazten hasi aurretik. Ikerketa hauen izaera nahibadakoa da eta sailen ezaugarri fisikoak,

udalerraren mugak, etxebizitza beharrak etab ezagutzea eduki ditzake helburu.

b) Aurrerapen dokumentua:

Plan orokorra idatzi aurretik osatu beharreko dokumentua da. Bertan, antolaketa irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak jasoko dira, etorkizuneko plana idazten lagunduko dutenak. Ingurumen azterketa bat ere jasoko da.

Dokumentua idatzi aurretik Eusko Jaurларitza eta Foru Aldundiko sailen kontsulta egingo zaie, ingurumen, kultur ondare eta antzeko eremuetan kontuan hartu beharreko xedapenen berri jasotzeko.

Udalak aurrerapen dokumentua prestatuko du eta hasierako proposamen bat luzatuko die herri-tarrei bere eztabaidarako.

c) Jendaurreko erakusketa.

Dokumentua gutxienez bi hilabete epean jendaurrean ipiniko da, interesa dutenek aztertu eta egokiak diren iritziak, iradokizunak eta proposamenak aurkeztu ditzaten.

Fase hori benetako eztabaida unea da, planteamendu ezberdinak mahai gainean jartzeko.

d) Helburu eta irizpide orokorren onarpena.

Jendaurreko erakusketaren emaitza ikusirik eta herritarren eta erakunde ezberdinen partehartzea oinarrian hartuta, Udalbatzak plan orokorra idazteko helburu eta irizpideak onartuko ditu.

e) Hasierako onarpena.

Plan orokorraren hasierako dokumentua idatzi eta Udalbatzak onartuko du.

f) Jendaurreko erakusketa.

Hilabete batekoa izango da.

g) Behin-behineko onarpena.

Jendaurreko erakusketaren emaitza aztertu eta egindako alegazioak ebatzi ondoren, Udalbatzak behin-behineko onarpena eman go dio plan orokorraren dokumentuari.

Dokumentuak aldaketa nabarmenak izan baditu, bigarren hasierako onarpena eman beharko zaio eta jendaurreko epe berri bat ireki.

h) Behin betiko onarpena.

Orain arte Foru Aldundiak ematen zuen kasu guztietan. Onarpen honen bitartez Foru Aldundiak kontrolatzen zuen plana legeak eta arauak xedatutakora egokitzzen zen. Hala ere, aurretik departamentu ezberdinen txosten lotesleak jaso behar ziren, errepideak, ingurumena etab. Eusko Jaurlaritzako COTPV-k ere bere aldeko txostena igorri behar zuen behin betiko onarpenaren aurretik.

Lege berriarekin aurreko txostenen derrigortasuna mantentzen baldin bada ere, 7.000 biztanletik gorako herriek planari zuzenean behin betiko onarpena emateko aukera izango dute. Populazio gutxiagoko herriek aldiz, Foru Aldundiaren behin betiko onarpenaren zain geratzen jarraitu behar dute. Hala ere, legeak aukera ematen du Foru Aldundiak udalei eskuduntza horren egikaritzea lagatzeko, baldin eta udalak baliabide tekniko egokiak baditu. Alkizaren tamainako herrietan zaila izango da lagapen hori gertatzea.

Herritarren partehartzea hirigintza planeamenduaren idaztean.

Herritarren partehartzea lege berriari jasotako printzipio nagu-

sietako bat da. Honek ez du esan nahi aurretik hirigintza planeamendu prozesuetan printzipio hori kontuan hartzen ez zenik, baina lege berriak bereziki azpimarratzen du eta bere sustapenerako hainbat neurri aurreikusten ditu.

Jakina da hirigintza planeamenduko prozesuetan interesa dutenen partehartzea gertatzen dela, baina betiko partehartzaileez gain, zenbaitetan presionatzaileak (eraikitzaileak eta eraikitze aukera izan dezaketenak), gainerako herritar eta taldeen partehartzea gertatzea beharrezkoa da. Horrelako prozesuetan interes orokorreko gai ugari jartzen dira mahai gainean, herri hazkundera, ekipamendu berriak, paisaia, ... , herriaren eremu ekonomiko, sozial, kulturalean eragina dutenak.

Hirigintza antolaketa egin, izapidetu, onartu eta exekutatzekoan bai pertsonena zein elkarte edo enpresen partehartzea sustatuko dela dio legeak. Aldi berean, herritarrei hurrengo eskubiak aitortzen dizkie:

- Interesdun gisa bertaratu daitezke, interes berezirik frogatu gabe, hirigintza planeamenduko dokumentuen tramitazioan, exekuzioan zein diziplina erabakietako prozesuetan.
- Dokumentuen kopiak eskatu ahal izango dituzte.
- Alegazioa eta errekursoak jarri ahal izango dituzte bide administratibo eta judizialean.

Udalak organo berezi bat sortu ahal izango du herritarren partehartzea bideratzeko, udal plangintzako aholku batzordea (Consejo Asesor del Planeamiento Municipal). Organo honek kontsultarako izaera izango du eta

planak idatzi, izapidetu eta onartzeari begira herritarren partehartzea sustatzea edukiko du helburu. Udalak aurrera eramanez nahi dituen jardueren berri herritarrei emateko bitartekari egokia izan daiteke.

Udal plangintzako aholku batzordearen organoa derrigorrezkoa da zuzenean plan orokorra behin betirako onartu dezaketen udaltan; gainerakoetan aldiz, Foru Aldundiak onartzen dituen bere planak, hautazkoa izango da udalentsat organo honen sorrera.

Legeak aipatutako bestelako partehartze neurriak, partehartze programak, kontsultak etab dira.

Ekimen publikoko etxebizitzak.

Udalek sustatutako etxebizitza tasatuak arautzen ditu lege berriak Eusko Jaurlaritzak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzekin batera.

Etxebizitza tasatuen figura orain arte praktikan erabili eta legekoa baldin bazen ere, ez zuen babes ofizialeko etxebizitzen babes maila berdina. Lege berriarekin ekimen publikoko etxebizitza mota izatera pasa dira.

Udalak etxebizitza tasatuen sustatzaile gertatzen direnean ordenantza batean jaso beharko dute eraikiko diren etxebizitza horien ezaugarriak eta erosleak hautatzeko prozedurak. Etxebizitzen kalifikazioa behin betirako iraupena izango du eta etorkizunean egingo diren salmentetan udalak etxeak lehentasunez eskuratzeko eskubidea edukiko du eta, horrela egingo ez balu, bigarren maila batean Eusko Jaurlaritzak. Eskuraketa horiek etxeen jatorrizko prezioan KPlak izandako gehikuntza kontuan hartuta egingo dira. ■

Alkiza 1947

Koldobika Jauregik helarazi digu aldizkari zahar baten kopia. Aldizkaria 1947an argitaratua da, eta hiru Diputazioek garai hartan kaleratzen zuten urtekaria da. Bertan, Gipuzkoa, Araba zein Bizkai-ko herri guztiei buruzko informazio interesgarria azaltzen da. Guk Alkizari buruzko pasartea aukeratu dugu, eta bertan agertzen den bezalaxe, oso osorik, zuenganatzen dizuegu. Pentsa dezakezue-nez, eta zein garaikoa den kontuan hartuz, artikulua gaztelaniaz dago. Guk horrelaxe transkribatu dugu:

ALQUIZA

Villa de 470 habitantes. Partido Judicial de Tolosa. Dista de San Sebastián 30 kilometros, y 8 de Tolosa. Celebra sus fiestas el 8 de septiembre y el 11 de noviembre. Estación más próxima para facturación y correspondencia, la de Tolosa; para viajeros el apeadero de Anoeta, ambos de la línea del Norte. Carece de carretera, pero se halla incluida en el actual Plan de construcción de Caminos Vecinales de la Excelentísima Diputación, proyectándose construir una carretera que, partiendo de Villabona a Aya pase por la villa para desembocar en Anoeta a la general de Irun – Madrid. Produce maíz, trigo, alubias, patatas, tabaco y maderas; cría ganado vacuno y de cerda. Teléfono.

AUTORIDADES

Alcalde: Mateo Aramburu

Secretario del Ayuntamiento: Martín Arratibel

Juez de Paz: Manuel Otaegui


Secretario del Juzgado: Basilio Múgica

Fiscal: Anastasio Ugartemendia

PROFESIONES Y OFICIOS

Cura párroco: Ramón Lizarralde

Coadjutor: Ignacio Olano



Aldizkariaren azala.

Herrador: Francisco Arregui

Maestra: María Asunción Bella

Maestro: Martín Arratibel

Médico: Luis Odriozola

Modista: María Clotilde Goenaga

Practicante: Fernando Echeveste

Propietarios principales: Mateo Aramburu, Antonio Alberdi, Juan Bautista Altuna, Rufino Iruretagoyena, Pedro Otegui y Joaquín Saralegui



Jose Migel Aranzabe, tratantea, Ursula Ezama, estankera, Maria Ugartemendia eta besotan, Jose Aranzabe.

Tratantes de ganado: Pedro y José Miguel Aranzabe

Veterinario: Gregorio Munita

COMERCIO E INDUSTRIA

Abacería: José Miguel Aranzabe

Carpintería: Santiago Gabirondo



Besteak best: Rufino Iruretagoiena, Pantaleon Saralegi, Juan Cruz Urruzola, Pantaleon Iruretagoiena eta abar.

Electricidad (Fábrica de): Central Electra Alquiza

Estanco: Ursula Ezama

Harinas (Molinos de): Mateo Aramburu y Herederos de Elola

Herrería: Francisco Arregui

Maderas (Productores de): Mateo Aramburu, Luciano Bengoa, Santiago Gabirondo, Pantaleón Iruretagoiena, José Olasagasti, José Otaegui, Ignacio Ugartemendia y Juan Cruz Urruzola.

Sidrería: Luciano Bengoa

Tabernas: José Miguel Aranzabe y Francisco Arregui

OTRAS ENTIDADES

Correos: Cartero, Tomás Ayerza

F.E.T. y de las J.O.N.S.: Jefe, José Otaegui

Teléfono (Locutorio): Encargado, Ignacio Olano. ■

Txikia izanik, haunditzen

Urtean behin argitaratzen den aldizkari honetan, gure kezkak, nahiak, gogoak eta abar azaltzeko aukera daukagunez, herriko eskola txiki honi buruz hitz egitea pentsatu dugu, zeren hor baitago gure etorkizuna edo herri txiki bat bizirik irauteko arrazoia.

Gu gurasoak garenok guraso elkarre bat osatzen dugu, eta gure umeentzat ekintza batzuk burutzen ditugu, herriko festetako eta San Martinetako festetan umeentzat jolasak antolatuz eta Udaletxearen laguntzarekin opariak, goxokiak eta txokolatadak banatuaz.

Gero badago beste jai bat ere, kurtsu bukaera dela eta, San Juan egunean egiten duguna, guraso bakoitzak patata tortilla bat edo beste zerbait eramanez ospatzen duguna, eta ondoren, nola ez, sua piztutzen da, eta haren inguruan festatxo bat egiten dugu, batzuek



Eskolako zaharrenak lanean Kristian irakaslearekin.



Ertainen gelakoak margotzen.



Txikien gelan datorren ikasturtean hamabi izango dira.

abesten dute edo dantzatu, beste batzuk suaren gainetik salto egin, eta horrela sua itzaltzen den arte.

Batek baino gehiagok esango du: ez ditudak gaizki bizi !!

Gure garaian ez genian horrenbeste festa egiten, eskolara joaten giñan eta han askotan egurra ematen ziaten, handik atera eta azkar lanak egitera, bokadilorik

gabe gehienetan, eta hauek berriz, beti jaietan pentsatzen.

Garaiak aldatu egin dira noski, eta orain guk daramagun bizitza xamurragoa da baina ez kezkarik gabekoa. Beti entzun izan dugu, eskola hau itxi egingo zutela eta inguruko herriko eskolaren batetara joan beharko genuela ikastera, izan dira urte txarrak, orain dela 3 urte 15 ume besterik ez zeuden ikas-

ten, baino orain gorakada bat daukagu eta 25 ikasle izatera iritsi gara, beste 4 irailan hasiko direlarik.

Gure arazorik handiena herriko eskola hau txiki geratu dela, herria hazi egin da eta noski, orain haur gehiago dago. Ez orain dela 30 edo 35 urte atzera begiratuta adina, baino garai haietan eskolan hasten ginen 4 edo 5 urtekin eta 13 edo 14 urteraino denak batera egoten ginen gela batean.

Baina orain ez dira kontuak horrela, orain dela 26 bat urte, eskola hau dena berritu zuten, paretak bakarrik utzi zituzten zutik, geroztik pintatu eta lehio berriak jartzaz gain, txikien gelan beraien neurriko komunak jarri zituzten, gela horretan 8 ume daude 2 eta 3 urte bitartekoak, eta datorren irailan hasiko direnak 4 gehiago, horrela izanik gela hau txikiegia izango da, eta Udaletxea, Delegaritza eta eskola arazo hau konpontzekotan dabilta. Ea, arazo hauek urte gutxi batzuetarako diren!, zeren eskola berri bat egiteko proiektua onartua dago, orain daukagun eskola honek, Delegaritzakoek eskatzen dituzten arau edo neurriak betetzen ez dituelako batik bat, gela gutxi eta txikiak, eskailera estuak, igogailurik eza, kalefazioaren kaldera eskola barruan egotea eta abar.

Gure nahia lehen bait lehen arazo hau konpontzea da, baina behar bada 4 edo 5 urte itxaron beharko dugu gutxienez, ez baitugu etsiko. Gure umeek bizitzeko eta ikasteko baliabide guztiak nahi baititugu.

Behar bada, beste urte batetan berriro ere aldizkari honetan idazten dugunerako, eskola berri hau egina egongo da, guk hala nahi behintzat!, eta bestela ziur izan gustora gure berri emango dizuegula guretzat txokoren bat badute aldizkarian. ■

Madarikatua izan dadila...

“Madarikatua izan dadila jaten duzuen janaria, edaten duzuen edaria eta arnasten duzuen airea. Madarikatua izan dadila zanpatzen duzuen lurra eta lotarako duzuen ohea. Sua eta harria besterik ez dezala bota zeruak zuen gauzen gainean; zuen lanaren emaitzarik ez dezazuela goza, eta beharrezan zaudetenean ez dezazuela laguntzarik aurkitu. Auzitara jotzen duzuen bakoitzean kondena zaitzate-la. Jainkoaren madarikazioak harrapa zaitzate-la, Aingeru Santuek babesik gabe utzi eta infernuko deabru guztiak gau eta egun inguruan izan ditza-zuela. Eta lurrak bizirik irentsi zaitzate-la, gorputz eta arimaz infernura eror zaitezten eta munduan zuen entzutearen arrastorik gera ez dadin. Honen adierazgarri, kandelak uretan itzaltzea agintzen dizuet eta, lurrera botata, oinazpian zanpatzea; eta inor ez dadila kandela hauetaz baliatu, zuen betirako kondena-zioaren seinale (diren gauza) madarikatuak baitira.”

Madarikazio beldurgarri hauek Alkizako legarratarren kaparetasun-agiritik jaso ditut. Han ematen da gertatutakoaren berri eta aurreko hitz hauek Alkizako elizan esandakoak omen dira.

Honez gero badakizue 1609ko abenduaren 7an Alkizako erretoretxeak su hartu zuela. Dena kis-



Giotto: *Inferno*.

kali zen. Alkizako erretoreak, kezkatuta, Iruñako gotzainarengana jo zuen egoera azaltzera, hark behar ziren aginduak eta baimenak eman zitzaizkan (garai hartan, Gipuzkoako mendebal aldean Iruñako gotzainaren menpe zegoen). Dirutan 150 dukatetik gora kostako ez zen apaizetxe berria egiteko agindua eman

zuen gotzainak eta, baita beste gauza batzuen artean ere, sakramentu-liburu berriak erostekoa (bataiatuak, ezkonduak eta hildakoak apuntatzeko). Baina bazen beste liburu bat erretorea bereziki kezkatzen zuena: elizako diru-kontuak apuntatzeko zeukaten liburuak. Diru-kontuen liburuak ere erre egin da –dio gotzainak–,

eta, ez dakigunez nork eta zer zor dion elizari, zera agintzen dugu: zordunak erretorearengana azal bitez eta esan elizari zor diotena. Agindu hau betetzen ez duena eskumikatuta edo eskomulgatuta geratuko da.

Eta, ondoren, madarikazio harri-garri –niretzat, behintzat– horiek azaltzen dira.

Agindu horiek 1610eko urtarrilaren 10ean eman zituen gotzainak. Erretorea don Adrian Urrutia zen eta elizako diruzaina, berriz, Arpideko Martin.

Ezkontzarako proklamak egiten diren antzera, don Adrianek hiru igandez segidan (1610eko urtarrilaren 17an, 24ean eta 31n) elizan irakurri zuen gotzainaren agindua. Aginduarekin batera eskumiku-madrikazio horiek ere irakurri zituen. Hitz horien bukaeran azaltzen denez, elizkizun berezia eta bitxia egin zen: kandelak itzali eta oinazpian zanpatuz ibili. Eta, seguru asko, ez zen horretan bukatuko. Auskalo nolakoa izan zen elizkizun hura!

Orain dela 400 urte Alkizako eliza barruan sortuko zen iskanbila (apaiza builaka eta jendea kandelak itzalita, ilunpetan, oinazpian zanpatuz) ez zen nolana nahikoa izango. Elizan partaide izan zirenei itolarria, ikara eta beldurra sartzeko moduko elizkizuna dirudi. Eskumikatua izatea zeruko atea kate lodiekin itxi eta infernuko atea parez pare zabaltzea baitzen. Sinestun batentzat –eta, orduan, denak ziren sinestun– izutzeko modukoa.

Hala ere, hain elizkizun berezia eta bitxia izan ote zen ala uste dugun baina ohikoagoa zen hala-



Signorelli: *Inferna*.

koak egitea? Benetan, beldurra sortzen ote zuen? Ez dakit.

Badakit, ordea, eskumiku-mehatxua Elizak askotan eta gauza askotarako erabiltzen zuela. Adibidez, ari garen garai hauetan bertan, 1608an, gotzainak, eskumiku-mehatxupear, debekatu egin zuen honako hau: meza berrietan, mojen edo fraideen abitu-hartzeetan, hileta-elizkizunetan eta abar, bazkariak ematea edo bazkaltzera joatea, laugarren graduko ahaidetasun barruan sartzen ez ziren mahaikideentzat. Baina, agintari zibil eta erlijiosoek halako aginduak askotan ematen zituztela ikusirik, ez dut uste infernuko beldurrak jende asko mahai aurretik urrutiratzen zue-

nik. Euskaldunentzat sabela sakratua baita.

Ikusi nuenean, eskumiku-formula hau bitxia egin zitzaidan, ez nuelako horrelakorik beste inon ikusi. Interneten ahaleginak egin arren, bat bakarra aurkitu dut, eta ez hau bezain gogorra.

Legarratarrak Amasatik (Legarra-Juanzuenea oinetxetik) datoz Alkizara ezkontza bidez. 1829an etxerako egin zen, eta Hondarribiko Pepita Setien Aranburuk gorderik daukan kaparetasun-agiriaren kopia erabili dut, madarikazio horiek hona aldatzeko. Gazteleraz daude, baina badakigu euskaraz irakurri zirela, gotzainak hala egiteko agindu baitzuen. ■

Martin Diez eskultorea,

Alkizako Litxasoko semea, 1500?-1583



Terrassa-ko hilobia.

Azken aldi honetan, Alkizan XVI. mendean jaiotako hargin eta eskultore berriak ezagutzen ari gara. Urrutiako Joan, Ambrosio eskultorearen aitona, bere bi semeekin eraiki zituen Donostiako San Bizente eliza eta kaia, aipatu mendearen lehen zatian. Alkizako Martin hargin-eskultore batek, 1540 aldera, Hondarribiko parrokiari eta Granadako Katedralean lanean ziharduen. Litxasoko Joan hargina, 1570ean, Alkizako San Martinen egitura jasotzen ari zen. Bentzalagako Miranda aita-semeek Ataun eta Alkizako bi San Martin elizak amaitu zituzten. Bengoe-txeako Ambrosio eskultorearen

bizitza eta obrak lehendik ezagunak ditugu, 1551-1625. Besteak beste, aipatu mendean badira Aragoien eta Nafarroan lanean zebiltzan Aginaga eta Urruzolako hargin gehiago ere. XVI mendeko beste izar berri bat, ordea, berriki azaldu zaigu Alkizan.

Zorionez, Joan Yeguas katalana oporrak pasatzera Alkizara etorri zen, 2007ko ekainean. Leteko nekazal turismoan jakin zuen gure herriko Litxaso baserriaren berri. Agidanez, horrelako baserri izen baten bila zebilen aspaldian.

Joan Yeguas Leidan jaio, Cataluñako XVI. mendeko eskulturan adi-

tua, bereziki luze eta sakon aztertu du Liazasoroko Marti Diazen obra, baina, eskultorearen jaioterria aurkitu ezinik zebilen aspaldiko urteetan. Iazko uztailean telefonoz eta postaz lehen kontaktuak izan genituen. Berari XVI. mendeko Litxaso baserriaren berri eman nion, banuen liburu eta artikuluetan argitaratutako eta anartean nire baitan isileko informazioa. Berak ni Liazasoroko Marti eskultoreaz oparo jantzi ninduen. Gure barrenak elkarririkaz hustu genizkion. Informazio trukaketa hartatik ondorio honetara iritsi da: *En conclusión, creo que todo apunta a que Marti Díez de Liatzaso solo fuere hijo de Alkiza.*

Joan Yeguasek, 2007ko abuztuan, bidalitako liburu eta artikulua laburtu ditut eta bere argazkiez osatu dut artikulua labur hau. Litxasoko Martin Diez Catalunyan hil eta 1583ko abuztuaren 11n irakurri zen bere testamentua. Testamentuko xehetasunetatik atera du aditu leridatarrak Alkizako pista. Litxasoko Martin Gipuzkoan jaio zen, Otxoa eta Juanaren semea. Aita eta bere hiru seme harginak Aragoi aldera joan ziren, ohitura zenez harria lantzera, gainera, 1510-1520 urteetan joan ere.



Martin Diez de Liatzasolo. Sinadura.

Otro derivado de la emigración de Otxoa sería el joven Martí, como Pedro, y quizás también Juan, comenzarían a trabajar la piedra en el taller paterno, que tendría que haber llegado a Aragón entre 1510 y 1520. Estas fechas son suficientes para que unos jóvenes nacidos entre 1495 y 1505 pudieran ayudar a su padre, y para que Martí tuviera de entrar en algún taller escultórico aragonés (entre 1515 y 1525), antes de llegar a Cataluña como un artista formado hacia 1527.

Martin eskultorea, 1535ean, Paula Botey katalanarekin ezkondu zen, badirudi seme-alabarik ez zutela eduki, beren testamentuetan ez da ageri-eta. Ondasunak Barcelonako Santa Cruz ospitaleari laga zizkioten.

Litxasoko Martinen lehen alpamena Barcelonan, 1527an, bi artista margolari portuges ikuskatu zituenekoa da, jadanik ikuskatzaile aditutzat zeukaten alkizarra, baina bertan, anartean ez zuen egoitzarik, nonbait iritsi berria zen. Hiru urtetan lortu zuen *Martinus de Liatzasolo, ymaginarius, civis Barcelona* titulua, hain zuzen 1530ean horrela sinatu baitzuen. Ikuskatzaile zorrotzaren ospea zeukalako, artista anitzen arte lanak epaitu zituen. Berehala lortu zuen erretaula eta irudigile sona.

Dokumentaturik dago bere lanik ugarien eta bikainenak 18 erretaula izan zirela, asko berak bakarrik eginak, beste batzuk lankidetzan. Frantziako Joan de Tours eskultorearekin egindako 8 obra ospe-

tsuak dira. Barcelona konterrian baditu 9 erretaula, besteak beste, San Jaime parrokiako nagusia eta Justo eta Pastor elizakoak. Barcelona probintzian ere baditu beste 8, adibidez Mollet del Vallès, Marata, Dosrius eta Canyamars parrokietan.

Agian irudi solteetan lortu zuen goren maila, Miquel Benet Gilabert notarioarentzat San Pedro (1550), Gabriel Cassador nobleari gurutze bat (1554) eta abar. Dena den, bere obrarik ezagutuena Tarrasako Espiritu Santuaren elizan dagoen Hilobi Santua da, 1539-1541 urteetan alabastroan taiutua, *con la firma en el sudario "Opus Martini Diez de Liatzasolo 1544"*, *donde el artista nos muestra su habilidad técnica y su capacidad expresiva* aitortzen du Joan Yeguasek.

Idazle leidarraren arabera, 1527-1583 urteetako hogeita hamar notarioen protokoloetan ageri dira bere abizenaren idazkera ezberdinak, esaterako, Liatxasola, Liatxaso, Liatzosolo, Liatxasolo, Liatzosolo, Liatxosolo, Liatxeasolo, Martin Diez de Aliaza (Alkiza?), Liatzasolo, Liasolo, Liassasolo, Sosolo, Litchasolo, Liessosolo... Notario katalandarren nahasketarekin asperturik bizitzaren hondarrean Martin Diez izen-abizenak soilik erabiltzen omen zituen. Litxasoko eskultorearen abizenaren idazkerak hain bariatuak izan baziren, neurri berean aberatsa jotzen da bere arte maila, Cataluñan euskal Antxietaren pareko. Alkizako egunsentiko artizarra dugu Litxasoko Martin eskultorea. Behar bada lehen izarra bai, baina ez azkena. ■



Jon Ayguas Brasó Lleidan jaiotako eta Catalunyako Arte Museo Nazionaleko arduraduna da eta arte gaitan aditua,

bere artikulu eta liburu batzuen berri adierazten da jarraian.

Artikuluak:

- "Miquel Mai embajador en Roma (1528-1533): erasmismo y mecenazgo", en Carlos J. Hernandez (coord.), *Roma y España. Un crisol de la cultura europea en la Edad Moderna*, (Actas del Congreso. Roma, mayo 2007), Madrid, 2007, pp. 297-321.
- "Els Grau i l'escultura del segle XVII a la Catalunya de Ponent", en *Locus Amoenus* (Universidad Autónoma de Barcelona), 8, 2005-2006, pp. 147-163.
- "Giovanni da Nola e la tomba del viceré Ramon de Cardona. Il trasferimento da Napoli a Bellpuig e i legami con la cultura in Catalogna", en *Napoli Nobilissima*, serie 5, vol. VI, Napoli, 2005, pp. 3-20.
- "Sobre l'escultor Martí Díez de Liatzasolo (circa 1500 - 1583)", *Locus Amoenus* (Universidad Autónoma de Barcelona), 5, 2000-2001, pp. 179-194.

Liburuak:

- (junto con J. Hilari Muñoz) *Arquitectura religiosa i renaixentista a la Terra Alta: esglésies i portalades*, Secció d'Arqueologia del Patronat Pro Batea, Batea (Tarragona), 2007.
- *Llibre Ver del Convent de Bellpuig*, Arxiu Històric Comarcal de Tàrrrega, Tàrrrega (Lleida), 2003.
- *Mollerussa*, Cossetània, Valls (Tarragona), 2003.
- *L'escultura a Catalunya entre 1490 i 1575. De la tradició medieval a la difusió i consolidació de les formes «a la romana»*, Universitat de Barcelona, Barcelona, 2001.
- *L'escultor Damià Forment a Catalunya*, Universitat de Lleida, Lleida, 1999.



Hontza zuria, hegazti dotore horren azpialde zuriak dotorezia berezia damaio. © EuskalNatura.net.

Hontzak, gaueko ehiztariak

Hontzak hizpide izan ziren Alkizan joan den maiatzean elizako teilatuko hegalpean hontzaren bat ba omen zebilen eta. Ez zen oso txukuna eta zirina bertan egiten zuen. Elizaren apaintasunaz ardura zuten alkizarrak ez zeuden pozik hontzaren jardunarekin, zirina garbitu eta, laster batean, zikina berriz han. Alfer lanerako ez zeuden, beraz, hontza uxatzen saiatu ziren... Aitzakia ederra eman didate hegazti babestu horiei buruz aritzeko.

Ez dakigu zein klasekoa zen gure eliztarrei adarra jotzen ibili zena.

Bizkaiko itsasora ematen duen Euskal Herrian lau dira bizi diren hontzak: hotza zuria (*Tyto alba*), hontza ertaina (*Asio otus*), urubi arrunta (*Strix aluco*) eta mozolo arrunta (*Athene noctua*).

Hontza zuria izan zitekeen elizako bisitaria. Izan ere, maite ditu giza-kiok eginiko eraikuntzak habia egiteko: baserri, eliza, borda eta enparauak. Egia esan, benetako habiarik ez du egiten arrautzak zuzenean lurrean erruten baitu. Urtean bi aldiz egin ditzake arrau-

tzak, lehen aldia martxoan hasi eta ekainean bukatzen delarik.

Gainerako hontzetatik erraz bereizten da, gorputzaren eta hegoen azpia aldea txuriak baititu. Txuritasunak ematen dio izen zientifikoari abizena: 'alba', zuri latinez. Gainerako hontzen moduan ugaztun txikiak (satsuak, saguak eta arratoiak), anfibiaok (igelak eta apoak) intsektuak jaten ditu.

Hontza ertainak bi ezaugarri nagusi ditu: nini beltzeko begi



Mozoloa da gure hontzarik txikiena eta lotsagabeena. Egunez ere ibiltzen denez, ikusteko aukera handiagoa da. © Arturo Eloseggi (Elhuyar Fundazioaren kortesiaz).



Hontza ertaina. Belarri moduko mototsak dira bere bereizgarri argiena. © Joserra Aihartza (Elhuyar Fundazioaren kortesiaz).



Urubi arrunta. Lumaje pikarta du, nabarra eta zuria. Elizako maizterra hauetako bat izan zitekeen. © Arturo Eloseggi (Elhuyar Fundazioaren kortesiaz).

horiak eta belarri itxurako tximak buruaren goi aldean. Seguruenik ez zen hau gure elizako bisitaria, basoan bizi baita, koniferoen basoetan, hots, pinudi eta antzekoetan. Bestetik, beste animalien habiak usatzen ditu martxotik ekaina bitartean hirutik bostera arrautza erruteko. Gauez bakarrik ibiltzen da eta hontza zuriaren moduko harrapakinak ehizatzen ditu.

Urubia izan zitekeen elizako bisitaria. Nahiz eta normalean basoan bizi den, pagadi, harizti eta gaztainadietan bereziki, gizakiak eginiko egiturak ez ditu arrotz eta jardinetan eta parkeetan ere izan ditzake bizitokia. Begiak beltz beltzak ditu eta burua borbila eta belarririk gabekoa. Udaberrian hiruzpalau arrautza erruten ditu, zuhaitzen zuloetan eta gizakiaren inguruan bizi bada, eraikinetako zuloren batean. Txorientzat arboletatik zintzilik jar-

tzen diren kutxa-habiak ere oso gogoko izaten ditu. Arrautzak, hontza zuriaren moduan, lurrean jartzen ditu zuzenean. Monogamo da eta bikotekide bera izaten du urtetik urtera.

Mozoloa oso arrunta da, hontza guztien artean ugariena. Ez da oso handia eta gure gaueko hegazti harraparien artean txikiena da; 25 bat zentimetrotako altuera izaten du. Ikusteko errazena da, argiposte eta antzekoetan pausatzeko ohitura duelako eta egun argiz ere ibiltzen delako. Kolorez arrea da eta orban txuriak ditu. Nekazaritza-lurrak gogoko ditu, non basoak, belardiak eta soroak nahasten diren. Habia zuhaitzetako edo harkaitzetako zuloetan egiten du, gizakiaren eraikin abandonatuak erabiltzen dituen arren. Aukeraren bat badago, mozoloren bat San Martin elizako maizterra izateko, bertan astean zehar jenderik ibiltzen ez denez enbarazu txikia

egingo ziotelako. Gainerako hontzen moduan, udaberrian erruten ditu arrautzak. Zizareak, harrak eta anfioiak jaten ditu bereziki, baina ugaztun txikiak ere harrapitzen ditu.

Elizan zein hontza-klasek hartu zuen ostatu ez dakigu. Susmagarri handi bi baditugu: hontza zuria eta urubia. Mozoloa ere izan zitekeen. Zein izango ote? Urubia izango zela uste dut. Zergatik? Ba, arrazoi sendorik ez dut, bihozkada baino ez. Baten batek, susmo irmoagorik ba al du?

Hontzak nekazarien laguntzaile bikainak dira pizti gogaikarri asko kontrolatzen laguntzen dutelako. Eta horrexegatik nahikoa mozolo handia izango litzateke urlia hontzak akabatzen saiatuko balitz eta, hori nahikoa arrazoi izan ez eta legeak babes ten dituen ez isun galanta jasotzeko arriskua izango luke. ■



Etorkizunari begira, iraganari erreparatuz.

Peruko idiak

1708

Perun aspalditik entzun da idien perra soñua eta "aida txuri, aida gorri" !.

1708an idi pare bat erosi zuten Perukoak. Eroslea Juan Geresta Perurena: sei urteko idiak ziran, "colorados", 27 erreal ordaindu zuan Juan Geresta Peruko jabe orrek. Saltzallea Migel de Urruzola. Notarioa Alkizako Martin Alkizalete. Data 1708-VI-16a (GPAO 3/2663,3).

Illez "colorados" ziran idiei "merzianoak" esaten zitzairen Alkiza inguruan.

Galizia aldetik zetozen.

1709

Lete basarriko semea zan Don Martin de Alkizaletek, geroago Alkizako erretore izan zanak (Ikus Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950) Pello Joxe Aranburu Ugartemendia.2001, 403

or.) idi pare bat erosi zuan kolorez "amarillos" ; 44 errealean zerratu zan tratua. Saltzallea Larraulko Aguirre zaar basarriko Juan Agirre Aundia, Data 1709-VI-23a. Notarioa Alkizako Martin Alkizalete. (GPAO 3/2663.36-37 orr).

Zertarako nai ote zuan Erretore jaunak idi pare ori? Lanerako ez. Idi-olataren bat eratzeko? Dokumentuak ez du orrelakorik esaten. Onenean Domingo de Aguirre apaizak erantzungo dio geroxeago nere galdera oni.

1832

Urte orretan ezkontza-itzarmena siñatu zan Inazio Antonio Legarra eta M^a Josefa Tapiaren artean. Mutilla Alkizako Perukoa zan eta neska Alkizako Arpide Azpikoa. Onen etxean gertatu zan ori. Data 1832-X-26a. Mutillaren gusasoak, Jose Antonio Legarra Perurena eta M^a Inazia Alkizalete Zabala. Ara dokumentuak diona: "que el matrimonio tiene una yunta de bueyes, tres vacas con sus crías y tres ganados de cerda, todos ellos muy buenos" (Aranburutarrak (1550-1850. Larrarte Arregi Enrike. Ad usum privatum, 2001, 229. orria.). Enrike jaunak liburu orren atal bat oparitu zidan. Orain arte argitaratu gabeko liburu. Enrike jaunak ez du ematen Notarioaren izenik. Ikusten danez, aspaldikoak dira idiak Perun.

1917

Urte artan, eta geroxeago ere bai, idiak ez ziran lanerako bakarrik: noizik bein, beste betekizun soziala ere bazuten, idiak isladatzen bait zuan etxe bateko estatus soziala illetetan. Etxe oneko jabe aundizaleak beren aundi-ustea agertu eta erakusteko, etxeko idiaz baliatzen ziran beren illeta- elizkizunetan. Ortan berdiñak ziran bai seglarrak baita parrokieta-ko zenbait Erretore ere. Basarritar edo nekazal aristokrazia aaltso eta indartsua ezagutu zuan, zoritxarrez, Euskalerrriak eta ziranak izan ziran modukoak izan ziralako, euskal basarritar eta Erretore aiek beren jauntxokeriaren ezaugarri edo sinbolotzat idia erabilli zuten gure elizetan, batak zein besteak betiren beti aberastasunaren erakusgarri.

Begira Domingo de Aguirrek, apaiz eta euskal idazle aundienetakoak

zer ikusi zuan Zumaiako Oikia auzoan lerro auek idatzi baño ogeika urte leenago. "Elizarako sarreran, ate ondoan burua jarririk, txintxarri ondo jantzia, apaiz jaunaren soñeko beltzez estalia, paparrean bera purpuxetaz apaindua, adar bakoitzean ogi andi bana zituala, idi gizen bat zegoan geldi eta mentsu, eliz barruko eresiketak entzuten bezela" (Domingo de Aguirre. Idia Elizan. RIEV, IX (1918) pp.69-70). Ori zan idi-olata.

Domingo de Aguirrek dionez, iru maillatako illetak ezagutu zituan berak bere garaian. Idia goreneko maillakoan izaten zan, zikiroa bigarangoan eta olloak, gari, arto, ale edo orrelakoak irugarangoan. Batean eta bestean illeta-ofrendak (olatak) ezberdiñak ziran. Beartsuak beartsu bezela, aundi-kiak nikeria eta gurekeriaz beteta. Gauzak bereizten zuten nortasun mailla: idi-olatak, zikiro-olatak, egazti eta ale-olatak...

Domingo de Aguirrek bere "Idia Elizan" izeneko artikuluan ("Zumayan 1917-ko Agorraren 17-an" siñatzen du) beste au ere esaten digu: "Oikiako apaiz jaunak, aitaren elizkizunean, oitura zarren gomutarako edo goitar zala erakuzteagatik, ipiñi zuan beintzat idi galanta eliz atarian".

Idi-olata? Arrokeria! Aundikeria! Ni bezelako bati "galazko jantzi-az" apaindutako idia dagokio bere illetan, pentsatzen zuten baldar, txintxarri, arropuz alako aiek! Azkoitian ere Idi-olatak ikusten ditugu 1781 baño aurregoko illeta-elizkizunetan (RIEV, XIV, 1923, pág. 573-587).

1944

Pedro Manuel Sorarrainen idi pare. 1944an Peruko jabea Kris-

pín Sorarrain zan, Pedro Manuelen aita. Aitaren baimenarekin nere anaiak idi parea erosi zuan, Sorarraindarrak Perun izan zituzten aurreneko idiak. Saltzallea Baliarraingo Saleta basarriko jabea. Pedro Manuel eta Joxe, nere anaiak, joan ziran idiak ikustera. Gustatu eta 8.500 pezetan itxi zan tratua.

Bi anaiak etxera zetozela "ikaragarrri patu izkiu", esan omen zioten alkarri. "Eosi izkiu, gustoa gañea ta ondo izan dittezel". Andik zortzi egunera egin zan pagamendua. 41 urtetan (1944-1985) izan zituan Perun Pedro Manuelek idiak. 41 urte oietan zenbat idi pare izan ote zituan Pedro Manuelek Perun? Ez nion galdetu eta ez dakit. Esan detenez 8.500 pezetan erosi zan idi pare. Kopetekoak neurriara egin arazi zizkion Tolosako Demetrio Jaime jaunari. Parea 175 pezeta eta mantak, oiek ere pare, jakiña, 175 pezeta. Galesti. Errentagarriak ziralakoan erosiko zituan idiak.

Peru etxeko sarrera printzipalean dauzkazu gaur Alkizako Peru basarriko azkeneko idi parearen adarrak, uztarria eta kopetekoak. Pedro Manuelen idi pareei buruzko xeetasun oiek danak berak neri esanda dakizkitela antzemango zenidaten onezkero. Bera ezagutu zenutenok ondo dakizute bizi izan zan arte egundoko memoria izan zuala.

"Oilategitik" urtekarian ere estreñeko zenbakitik asi eta gaur arteko danetan bere erantzunen bat edo beste, zer edo zer ikusiko dezute. "Oilategitik" moldatzen dezuten guztioi, milla esker Peruko izenean 7.alean nere anaia gogoan izan dezutelako. Merezi zuan. Berriz, milla esker. Pedro Manuel, "ayo ta eun aundiya arte". Sondika 2008-V-15a. San Isidro eguna. ■

Hiri hondakinen bilakaera 2007ko ekitaldian



Tolosaldeko Mankomunitatearen osaketa: 1998an eraturako erakunde publikoa da. 28 udalerririk osatzen dute (58.412 herritar). Helburu nagusia bera osatzen duten udalerrietan sorturiko hiri hondakinen kudeaketa da.

Nolakoa da sortzen dugu zaborra?:

Materia organikoa	% 33,36
Papera eta kartoia	% 30,74
Beira	% 10,69
Ontziak	% 14,59
Bestelako plastikoak	% 1,27
Metal ferrikoak	% 0,24
Etxeko hondakin arriskutsuak	% 0,12
Nahasteak	% 5,10
Tamaina handikoak	% 2,51
Inerteak	% 1,43

Beira: 2007ko urtean edukinontzi berdearen bidez, 1.740.070 kilo beira berreskuratu ziren. Aipatu kopuruak % 9an gainditu zuen 2006 urteko kopurua. Urteko 29,8 kilo biztanleko beira bilketa maila lortu da.

Papera eta kartoia: kaleko edukiontzi urdinetan 1.983.750 kilo jaso dira, aurreko urtean baino % 6

gehiago, komertzio eta industrietan berriz, 783.742 kilo jaso dira, aurreko urtean baino % 11,22 gehiago. Garbigunean berriz, 44.760 kilo jaso dira, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago. Denera, 47,38 kilo biztanleko indizea lortu da.

Ontziak: 2007an edukinontzi horian jasotako plastikoa, metal eta brik motako ontzi bilketan, 595.300 kilo jaso dira, aurreko urtean baino % 12 gehiago, hau da, 10,2 kilo biztanleko.


Arropa: 2007ko urtean 156.108 kilo berreskuratu ziren. Honela, 2,7 kilo biztanleko eta urteko, aurreko urtean baino % 4 gehiago.

Puntu berde mugikorra: Zerbitzu hontan, 10.095 herritarrek hartu dute parte, guztira 17.141 litro olio eta 3.296 kilo hondakin arriskutsu jaso dira.


2007an, aurreko urtearekiko hiri hondakinen sorrera % 2,3an handitu da, 25.936.581 kilo jaso dira. Hau da, urtean biztanle bakoitzak 484 kilo zabor sortu du, beste era batera esanda, 1,22 kilo egunean. Indize hau % 1,8 igo da aurreko urtearekiko.

Birziklapen indizeari dagokionez, honek igoera nabarmena izan du aurreko urtearekiko, hau da, % 9,9koa. Sortutako hondakinekin % 25,8 berreskuratzea lortu da. Herritar bakoitzak urtean 114,70 kilo hondakin bideratu ditu gaikako bilketara.


Martin Diezen lanak




Terrassako bustoa.



Mollet-eko erretaula.



Dosrius-eko erretaula.



Terrassako irudiak.



Martin Diez de Liatzaso. Sinadura.



www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!



Alkizako Udala



GFA